

**ADOLFO AREJITA,
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Bilboko Udaletxea, 2005-VI-24

ADOLFO AREJITA, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Ongietorria

Bilboko Udaletxea, 2005-VI-24

*Iñaki Azkuna,
Bilboko alkatea*

Euskaltzainburu jauna,
Euskaltzainok,
Jaun-Andreok:

Egun on.

Udalaren izenean agurtu eta ongiatorria eman nahi dizuet guzti-guztiori. Guretzat, ohore handia da Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon edukitzea, eta ideia bikaina iruditu zaigu, ekitaldi hau ospatzeko Bilboko Udaletxea aukeratu izana. Eskerrik asko, Euskaltzainburu jauna, ideia distiratsu honengatik.

MINTZALDIA

Si no falla la memoria de nuestras dos Instituciones, Euskaltzaindia y Ayuntamiento de Bilbao, ésta es la segunda vez que la Real Academia celebra sesión pública en esta Casa Consistorial, la casa de todos los bilbaínos y bilbaínas. En efecto, el 28 de mayo de 1951 estos salones fueron escenario de la reunión en que hizo su ingreso Juan Gorostiaga.

Fue aquélla una sesión presidida por R. M. Azkue, una de las últimas que Don Resurrección había de presidir, pues falleció ese mismo año. Y al discurso de Juan Gorostiaga, sobre los nombres de lugar de Bizkaia, le respondió el secretario, Nazario Oleaga, sobre la importancia de la lengua vasca para la ciencia y para la sociedad vasca. El Acta de Euskaltzaindia recoge que asistieron además los académicos Etxegarai, Etxaide (quien sucedió a Azkue en la presidencia), Irigaray, Krutwig, más los miembros correspondientes Mantorola, Arruza, Garro y Villasante. Además el acta añade que se recibieron mensajes de adhesión de quienes no pudieron asistir, entre ellos Don Manuel Lekuona, los miembros correspondientes Larrasquet y Jud, y los señores Gortari, alcalde de Pamplona, el cónsul de Francia en Bilbao y algunos otros. El tex-

to indica también que a la sesión asistió un gran e ilustre gentío: «Oste aundi-aundia oso-bikaina da ikusle ta entzule».

Pasados estos 54 años, es un gran honor para este Ayuntamiento y para mí, acoger esta sesión, para celebrar el ingreso oficial de Adolfo Arejita como miembro numerario.

Son conocidos los méritos de Adolfo Arejita, y personas más solventes que yo desgranarán una trayectoria de trabajo y de esfuerzo en el campo de la lengua y de la literatura. Puedo decir que, como Alcalde, me siento muy orgulloso de la labor de este convecino, y que deseo fervientemente que los próximos años sigan viendo desplegarse los frutos de su investigación.

* * *

Bene-benetan, pozik nago gaur zuen aurrean hitza hartzeagatik. Lehen aldiz mintzo naiz Euskaltzaindiaren batzar batean. Ez, ordea, euskaltzainekin, eta ez Euskaltzaindiaz. Hirikideak dira, izan ere, Udala eta Euskaltzaindia; hirikideak ez ezik, auzokideak. Areago: etengabe harremanetan, beti ere euskararen alde eta gure kultura sustatzeko eta zabaltzeko.

Hitzarmen bat du izenpetua Udalak Euskaltzaindiarekin, eta gerora begira elkarlana sendotuz joango da, zalantzarik gabe, alor batean zein bestean.

Euskara da, erdararekin batera, gure ondarea, eta bilbotar argienek ondo baino hobeto ikusi dute hori. Horra, adibidez, Unamuno bera, euskaraz Gernikako Arbolan kantari.

Arbasoak eta sustraiak inoiz ere ahaztu gabe, esan dezagun Euskaltzaindiarekin batera: «Ekin eta jarrai».

* * *

Señor Presidente, yo creo que por el bien del desarrollo de este acto solemne, Vd. que además ejerce con brillantez la tarea de notario debiera de dirigir las diferentes secuencias programadas. Con la total conformidad del Alcalde. Y nadie se asuste si en el transcurso me sacan momentáneamente de la sala. La vida municipal es bulliciosa y se producen tantos acontecimientos en la Villa, y todos tan diferentes, que necesitan nuestra atención y, en ocasiones, rápidas decisiones. Si esto ocurriera, mis excusas. Estoy seguro que me sabrán perdonar.

ADOLFO AREJITA, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Agurra

Bilboko Udaletxea, 2005-VI-24

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Bilbo hiriko alkate txit argia,
Excmo. Sr. Alcalde de la villa de Bilbao,

Bilboko udaleko zinegotziak eta udal honetako kideak,
Sres. Concejales del Ayuntamiento de Bilbao y miembros de esta corporación,

bilbotarrok,
bilbaínas y bilbaínos,

agintariok,
autoridades,

euskaltzain ohorezko, oso eta urgazleok,
académicos de honor, de número y correspondientes,

jaun-andreok,
señoras y señores,

egun on guztioi!
buenos días a todos!

Berriro dator Euskaltzaindia bilbotarren etxera, bertako Udaletxera. Egia esan, etxeko ikusten du hemen bere burua Euskaltzaindiak, Bilbon, eta, zer esanik ez, Euskal Herri osoan ere, ondo errotutako erakundea baita gure akademia.

Bada, hala ere, niretzat, egun hau bereizi eta hautuzkoa. Halaxe bururatu zait hona gentozela, kalean zehar ibilaldia egiten, eta R. M. Azkue, gure lehen euskaltzainburu izan zenaren etxe albotik igarotzean. Ondo dakizuenez, aldamen-aldamenean bizi zen hura, *Zingira/Sendeja* kalean, hain zuzen ere. Egunerokoa zuen hark, Euskaltzaindiak *Erribera* kalean zuen egoitza zaharretik irten eta Udaletxerako norabidea hartzea. Etxe honetara iritsi aurretik bira egin eta bertan zuen bizilekua. Bide erdian, hortaz, gure egungo egoitza-

ren eta Udaletxearen artean. Areatzan zehar etortzen zen, errekaren albo-albotik, menturaz behinolako itsasalde lekeitiarraren herriminez. Begi-bistan zituen Bilboko Udaletxea eta San Nikolas eliza. Aurre-aurrean, itsasontzi ketsuak eta moila zeregintsuak. Horra hor, orduko Bilbo, eta, bertan, argi dago, euskara ere lekuko.

Egun, aldiz, Azkuek egiten zuen bide erdia baino, bide luzetxoagoa egin dugu, Adolfo Arejita bilbotarra Euskaltzaindiaren altzora ekartzeko, non eta Azkue zenaren bizi-txokotik hurbil, Bilboko Udaletxean bertan.

Nor Adolfo Arejita? Nolako haren lana? Esan dezadan egun Euskaltzaindira datorrena, gauza ororen gainetik, ikertzaile eta irakasle dugula. Bilbotarra da, eta, familiaren aldetik, Bizkaiko Morga herrian ondo errotutako sustraiak ditu euskaltzain berriak. Haren eskutik ezagutu ditugu hainbat idazle, bizkaitarrak zein bestelakoak, Adolfo Arejitak sakon eta artez miatu baititu euskara klasikoaren iturriak, hala idatzizkoak nola ahozkoak.

Morgako euskara doinuak eta Bilboko esku-erakutsiak eta ikuspegi zabalak nabarmen zaizkio, eta badaki oparo eta gogotsu ekiten, euskarari berea eman nahian. Badu, bestalde, Arejitak, osterantzeko ezaugarria, alegia, lan-taldeak, proiektuak eta giza baliabideak antolatzeko eta kudeatzeko dohaina. Hara hor urteetako eskarmentua, Labayru Ikastegian ondua. Hori ere, euskalgintzaren barruan, azpimarratzeko eta nabarmentzeko modukoa. Horrexegatik egin dugu gure kide, uste dugulako beraren ekarriak, Akademia ez ezik, Bizkaiko eta Euskal Herriko euskalgintza ere zinez aberastuko duela.

Joan den astean bete zituen Bilbok 705 urte. Orduko ekitaldian entzun genion Bilboko alkateari, Iñaki Azkuna jaunari, Bilboko hiria eraberritzeko gogo eta ahaleginak bilbotar guztionak eta bilbotar guztioi esker direla egitekoak.

Ahalegin horietan, zalantzarik ez, Euskaltzaindiak euskararena du helbururik behinena. Horretan nahi dugu lagundu eta bilbotarrekin bidaide jardun, eraberritze hori, itxuraldatze hutsa baino, sakoneko iraulia izan dadin, gero eta Bilbo euskaldunago baten esperantzan.

Mila esker, beraz, zuon harrerarengatik, eta gatozen orain ekitaldiaren protokolora.

Hitza du Xabier Kintanak, Euskaltzaindiaren idazkariak.

IDATZIZKO ETA AHOZKO TRADIZIOA GAUR EGUNGOARI BURUZ

*Bilboko Udaleko Arabiar Aretoan, Adolfo Arejita euskaltzain oso legez
Euskaltzaindian sartzea dela-ta eginiko ekitaldi akademikoan,
Euskaltzain oso berriak eginiko
Sarrera Hitzaldia*

2005eko ekainaren 24an.

0. AGURRA

Bilboko Alkate Jauna, Euskaltzainburu jauna, Udaleko zinegotzi eta ki-deak, herri-agintariak, Euskaltzaindiko kide oso, ohorezko eta urgazleak, La-bayru Ikastegiko lagunak, Bilboz ganera, Morgatik, Gernikaldetik eta Mun-gialdetik etorri zarien senide eta lagunak, neure etxeokak (Laura, Jurgi, Olaia)... Jaun-andre neureak, ondo etorriak guzti-guztiok.

1. BILBO ETA MORGARI AGURRA

Batek baino gehiagok itaun egin deust zer dala-ta Bilbon, eta Bilboko Udaletxeko areto apain honetan hatan be, nire sarrera-hitzaldiko ekitaldi hau. Hemen jaio nintzan eta hemen bataiatu, Indautxun, Karmengo Amaren klini-kan eta eleizan. Seinzaroa eta umetasuna Morgan igaro nituan, Meakako au-zoan. Hamairu urteko nintzala etorri ginan Bilbora biziten, Indautxuko Doc-tor Areilzara; sasoi haretan beste asko, hurreko zein urruneko, uri nagusira batzen ziran antzera. Derion eta Bilbon egin nituan ikasketak hamar urterik gora; hemen lan egin dot bizi guztian, kazetari legez lehenengo, irakasle eta ikertzaile legez gero; hemen sufridu dot sasoi bateko Bilboren itzala eta tris-tea, eta hemen gozaten dot gaur begi aurrean dakuskun Bilboren ederra. Mor-gakoa dot neure umezaroa eta batez be zimendutzat hartu neban euskerea; Bil-bokoak ditut neure gaztezaroa eta heldutasuna.

2. AURRETIKO EUSKALTZAINEI OMEN

Euskaltzaindiak euskaltzain osoendako dituen 24 aulkietarik, sartzen de-nak zein hartu duen esatea usu da, eta lege zaharra galtzera utz ez dadin, zor

diet gutxienez aipua, nire aurretik aulki horretan jesarri izan diren hiru euskaltzainei: Julio Urkixo, Luis Villasante eta Andolin Eguzkitza.

Julio Urkixo euskal filologook gurasotzat ezagutua dugu, eta berak egin zuen lan erraldoiagatik baino gehiago beharbada, berak eragin zuen lan zabalagatik eta *RIEV* aldizkariaren bidez horretarako sortu zuen azpiegitura sendoagatik berrezagutuago izan behar duena, etxeko eta erbesteko biltzen jakin zituelako euskal hizkuntza eta literaturaren ikertzaileak bere plaza horretara.

Luis Villasante, Arantzazuko goi bazter hartatik, herri-literaturaz zela, erlijioaz zela, edo euskal hizkuntza eta literaturaren gainean zela, hamaika liburu eta idatzi labur ondu izan dituena, *Historia de la literatura vasca* aspaldiko obra mardul haren bitartez euskal literatura osoaren irakurle, ikertzaile eta kritikoa zorrotz legez burua zelairatu zuena, eta Euskal Akademia honi zeutsala, bereziki buru izan zenetik euskal hizkuntzaren alde ekinbide luze eta mardula garatu zuena.

Andolin Eguzkitza, neure belaunaldiko gizona, gaztetxotatik, Deustuko Unibertsitatean ikasle ginen garaitik eta *Anaitasuna* inguruan kolaboratzen zueneko hartatik ezaguna eta adiskide nuena. Gizon gazte kezkatu urduria, mila gizarte-ekimenetan murgildua, ez bakarrik linguistika eta literaturari zegozkienetan, berdin gizarteari zegozkienetan ere. Gizatasun berabetekoa zuena; adikorra eta irekia. Erdaldun jaio izanik, bere burua euskaldun oso egiteraino



nekerik hartu ez zuena. Berariaz aitortu nahi nioke gramatika arloan, literatura sorkuntzan eta euskal hizkuntza-literaturen susperkudean egin duen lana. Bilboko Udal honek eratzten duen «Miguel de Unamuno» Saio Sariaren epaimahaikide ginen aurreko edizioan, erabakia hartzeko elkartzekoak ginen aurreko egunean eraman zigun herioak, gogo-bihotzak asmoz eta ekimenez bete-bete zituen gizon gordina.

Halaxe kendu dit neuri ere, heldutasunik ederrenean ekain honen 5ean Jorge neure anaia mina. Edozer emango nukeen, ospakizun honetan bera aurrean izateagatik, beraren gomutaz egin asmo dudan hitzaldi hau entzuten.

3. GAIAREN AURKEZPENA

Hizkuntzaren kalitatea gora eta behera gabiltzan aldi honetan, eta euskararen batasun oinarriak finkatzeak orain dela ia berrogei urterik hona izan duen lehentasunorrek bere gordintasuna apur bat beheratua duelarik, eraz datorrela deritzat gaur egungo euskara jasoak, batez ere idatziak, gogoan izan beharreko ardatz batzuk –erreferentzia batzuk, nahi bada– gogoeta-gai hartzeari.

Giza kultura mailaz maila eraiki doa, maila batean zimendu hartzen duela hurrengoak. Eraikuntza sendo eta gora bat mailakako beharleku luze eta eropentsua izan doa. Hizkuntzaren barrutian ere, hura erabili eta lantzen dugunok geure esku dugu, aurretik ipiniak diren zimenduak sakon ezagutu edo aztertzea, haiezaz balia ahal gaitezen ahalik oparoen eta zuhurren.

Gaur garatzen eta gizarte- eta jakintza-eremu guztietara hedatzen ari garen euskara –gure hizkuntza apalau– ongari eta ornidura askoren beharrean dago, eta lehen zaharrean landuriko arloak nola ez diren askotarikoak ez ugariak, ahalegin berarizkoa egitera behartuak gaude uneoro, den arloan dela ere: berdin zuzenbidean zein filosofian, zientzia zehatzak direla zein giza zientziak direla, nahiz teknologia berriak direla nahiz administrazioak barrutzen dituen eremu zabal-askotarikoak direla; ahalegin berarizkoa hain zuzen, etenbako joan-etorrian ari den kulturak sortzen dituen kontzeptu berri guztiei –eta berariaz maiztasuna eta pisua duten haiei– euskal ordezekoak bilatzen eta ahaleginaz ondo asmatzen.

Sorkuntza eta berrikuntza ahalegin horrekin batera premia bizikoa dugu lehenean urratu eta batez ere artez asmatu diren bideak ondo ezagutzea eta haiezaz berriro ausnar eta gogoeta egitea, sarritan baitirudi, zernahitan hasten garela, hutsetik abiatzen garela, zeinda aurretik ezer egin ez balitz legez. Lehenean azterrenen bila maizegi zabar antzean ibiliak gara, batzuetan ezjakinez eta beste batzuetan jakinarean gainean, zeinda leheneko hori geroaren arierio balitz legez, eta ez osagarri edo lagungarri. Gogora datorkit harako Mitxelenak behinola gogoetara zigun irudia: idi-uztarriak behar zuela gurdiaren aurretik joan, eta ez gurdiak idi-uztarriaren aurretik. Jada eginak diren, edo

aurretikoek asmatuak dituzten bideak ondo ezagutu barik ezin da geroa ere ondo asmatu, eta euskararen kasuan are premiazkoagoa dugu jokabide hori, zeren gure hizkuntzak gizarte-erabileran, bai ifar, bai hego, eten gordinak izan dituen, loraldien ondorik iharraldiak etorri direla, eta sarri gure euskal lurra loraldia hasi aurretik baino mortuago eta agorrago uzten zutela. Honetan ez dira ahaztekoak XVIII. mendearen azkenalditik XX. mendearen lehen 40 urtekoaren barruan jasan ditugun gerrate lazgarriek erakarri dizkiguten eragin galgarriak. Baina gatozen atzera lorratzera.

Euskal literatura apala, idatziz kontserbatu dena eta ahoz transmititu dena –batzuetan idatziak galdu izan direlako, besteetan irarri izan ez direlako edota soil-soilean ahorik ahoko bizia baino ezagutu ez iraun dutelako– harrobi eta adigarri paregabeak ditugu euskararen kasuan, gaur egungo bizimodu modernoak berekin dakartzan premiei sendoro erantzuteko. Gure tradizioari ze etekin atera, horra hitzaldi honen bidez azalera nahi nukeen kezka eta nire mintzagaia. Zehaztasunez garatzeak eskatzen dituen neurrietara hedatzerik ez dudanez, zertzelada batzuen bidez marraztuko ditut gogoeta-gaiok, pintura inpresionista baten antzera.

Hizkuntzaren eduki ugari horretan, lexikoa, lokuzioak eta baita ere zenbait sintaxi-eraikuntza hartuko ditut ardatz.

4. IDATZIAZ ETA EUSKARA IDATZIAREN TRADIZIOAZ

Tradizio hitza aipu dugunean, iraganetik gaurrera eginiko bidea dugu gogoan, eta tradizioa aintzat hartzea diogunean, eginiko bide horrekiko atxikimendua, nolana ere. Eta euskara idatziaren tradizioa dela-ta denean autua, lehengo mendeetarik gaurdaino idatziz josi dugun, nahiz sarritan ahoz aldarrikatu, euskarazko brodatu hori dugu buruan.

Barandiaran gureak esan ohi zuen, lehena ikasi behar genduela, ez lehena ezagutzeko asmo hutsez, ezpada geroa hobeto asmatzeko; ikasi behar genduela lehengo gizonak –gure arbasoek– arazo baten aurrean zelako erantzuna bilatu zuten, nola asmatu zuten zailtasun hori gainditzeko; hori baita kultura funtsean, gizonak kontrakoa duen inguru baten aurrera egiteko sortzen dituen lanabesak, eta horietarikoa dugu hizkuntza ere. Hitz gordinagoekin adierazi zigun ideia bera Wilhelm von Humboldt euskaltzale handiak: «Nur wer die Vergangenheit kennt, hat eine Zukunft».

Kultura, bada, ez da doako zerbait, gogo hutsez sorturiko zerbait; beharrrak eragindako zerbait da gehiago. Gizonak inguruari egoera bakoitzaren aurrean emaniko erantzuna da kultura oinarrian, premiak eskaturik sorturiko zerbait, beraz, gizakiak uneoro edo aldioro dituen beharrianen arabera. Mundu honetan ia guztiak du eragingarriren bat atzean, eta gure hizkuntza-emaitez ere berdin, euskal literatura barru dela.



Eta gure literatura idatzira gatzela, idatziaren birtute on bat gogora nahi nuke: duen irautea. Idazten denak dirau; idatzia hor datza, nor noiz hurreratu-ko zain; gehienbat paperean, nahiz gero eta gehiago euskarri informatikoan.

Irudizko eta hitzezko mezuen galkortasunaren aurrean, idatzia iraunkorra da. Irudiak, etengabeko irudiak nagusitu diren aldi honetan, idatziaren gorantza egitea, ez beza inork atzerabidetzat jo. Irudiak biziak, arinak, deigarriak dira; eta irudi-inguruz hesiturik gauden aldi honetan, idatziak ohi duen zehaztasuna, zaindu ohi dituen zertzeladak, izan ohi duen sakonasuna, mezuaren transmisioan eskaini ohi duen segurtasuna markatzera gatoz.

Idatzia hitzez hitz, esaldiz esaldi eiho doa; hitz bakoitza letraz letra. Une-oro goaz hautatzen hitz, hitz-kate, esamoldeak, nahi dugun kolore, ñabardura, adierazkortasun edo eragina jadesteko. Eta hitz idatzia gogoratzekoa da, iraunkorragoa. Kultura hitzen bidez eraikitzen dugu, hitz idatziaren bidez goititzen. Hala eiho dute gure aurretikoen gure euskal literatura tradizioa ere.

Eta honetara ezker, gure tradizio idatziaren zenbait zertzelada gogora nahi nituzke diodanaren haritik.

Idatzizko tradizioa deritzan horretan, batetik zaharra, klasikoa dei dezakeguna eta bestetik «klasiko modernotzat» har dezakeguna bereiziko nituzke, hizkuntzaren aldetik behinik behin, aro guztiz diferenteen adierazgarri direla-

ko. Ez dut honekin esan gura, ardoa bezala, zaragian luzaro egonagatik zaharra berria baino hobea denik, baina bai nolabait mendeen geriza luzeak hizkuntza-egiturei ere abaro zabalagoa eskaintzen diela oraintsuko askok baino. Edozelan ere, «klasiko» hitza zentzu hertsira zedarritu nahiago dut hemen: euskal testuak hizkera alderditik eredugarri, edota zinez fidagarri diren ginoan sartuko nituzke esparru horretan, batez ere «klasiko» adjektiboa testu modernoei egotzi behar zaien kasuan, batez ere gogoan izanik XX. mendeko produkzioa, berariaz mendearen azken herenekoa, aurreko guztia baino askoz ugariagoa izan dela piloan hartuta. Ugaritasun hori, konpentsazio-legez baino ez bada ere, galbahe estuaz iragazi beharra dago; bestetara esanda, ugaritasun horretan hautu meheagoa egin beharra, zertzelatu beharra, hain zuzen ere guri hemen dagokigun hizkuntzaren erabilerari eta ereduari dagokion adinean.

Aurrekoa esanda, euskal literatura tradizioa dela-ta gora handikoa den puntu bat nabarmenduz abiatuko naiz: idatzi den guztia ez dela inprimatu izan, ez asko gutxiago ere. Gurea irakurleko laburreko eta aberastasun urriko lurraldea izanik, lehenean behintzat, asko dira gure literaturan –eta Bizkaiko eta Nafarroakoak dira beharbada kasurik deigarri-tristeenak– inprimatzeko prest utzi eta argitara biderik ezagutu ez duten idatziak, edota onik onenean ere zori hori berandu baten izan dutenak. Mogelen *Peru Abarka* berba-jardunen kasua guztiz da ezaguna, haren alegia ez hainbeste beharbada, baina hala ere bi menderen hutsune mingarria utzi duena euskal gizartean. Añibarro, haren belan bereko idazle handiak ere, doktrina-obra labur bi argitaraturik ikusteko poza baino ez zuen izan, idatzi zituen lanik mardulenak artean argitara barik geratzen zirela, eta oraintsura arte edo oraindino argirik ikusi izan ez dutela. Lizarraga Elkanokoaren kasu ezaguna aipa daiteke Nafarroan.

Inprimatze-egitura ahul horren ondorioz, bada, gure literaturako obra itzal handiko batzuek –batzuek baino gehiagok seguruenik– guztiz beranduan ikusi dute argia; ondorioz ez zuten eraginik izan, gutxi baino, sortu izan ziren garaian eta gizartean; izan duten apurra, edo hurrengo belaunaldian edo askoz geroago beste kasu batzuetan. Obra horietariko batzuk XX. mendean edota azken hamarkadetan etorri dira ezagutzera, edo aldizkarietan edo liburuetan edizio kritiko gisa atera izan direlako; beraz, interes filologikoa nagusi dela, berzeko balio literarioaren edo didaktikoaren gainetik.

Aurrekoaren ardatzean gogora beharrea nago badela gurean beste literatura modu bat, literatura xumea itxura baten, silutegirako uste barik sortu izan zena; hau da, irakurtzeko barik, entzuleei berbaz mezua aditzera emateko –kristau mezua, zehatz dezagun– lehengo garaian ondu zen erretorika-lan guztia, eta gehien-gehiena oraindik ezagutzera ere heldu ez garena. Literatura apal eta estali horren lekuko da Labayru Ikastegiak Frantziskotarren Ordenarekin batera atera berri duen katalogo erraldoi bat, zeinetan ordena horretako predikariek, batez ere XVIII eta XIX mendeetan idatzi eta esaniko sermoien fitxa egiten den, bost milatik gora fitxa guztira, bakoitza idatzizko unitate bati dagokiona –sermoi bati gehienetan–, zazpirehundik gora predikari-idazlek on-

duriko testuak, ia seirehun izen-abizenak dakizkiegunak, eta beste 130en bat ezezagunak. Hala ere ia guztiak, gure literaturaren historietan ageri ez diren idazle apalak (1).

Beste hizkuntzetan ere badirela halakoak, eta gurean baino askoz ugariago, ihardets lekidake norbaitek. Bai, baina hala dela ere, gurean halako altxor batek esangura handiagoa du, askoz handiagoa, auzo aberatsotan baino. Ez bakarrik gure literatura-testu inprimatuen corpusa laburra delako eta inprimatu gabekoen kopuruak horregatik berorregatik neurri adierazgarria jadesten delako. Bada beste arrazoi bat ere ahaztu ezinena: lehengo mendeotan idatziriko izkribuok, euskalkietan eta azpieuskalkietan erredaktatuak daude, eta ez idazle gutxi batzuen lumaz, baizik ehundaka esku diferentetatik jalkiak; erre-gistro-dibersitate handia darakusate, eta diferentziok, ez bakarrik morfologia, ezpada sintaxi-puntuak, eta batez ere lexikoa eta fraseologia hartzen dituzte.

Literatura berezia da izatez, ezin ukatu; berbaz esan eta entzuteko ondura gehiago, irakurtzeko baino. Eta horregatik berorregatik paraje eta giro diferenteetako entzuleen belarrietarako hizkera egokituia duena. Ez dugu ukatuko bestetik, muga handi bat ere baduela literatura erlijioso honek, gaiarena hartan ere, zeinek ia beti antzera edo errepika sunda handia ohi duen.

Aspaldi honetan gertatu den aurrerakuntza informatikoaren fenomeno berrira da beste eragingarri pisutsu bat gure literaturaren joan-etorrian ere: euskal testuen ondarea, paperetik harago euskarri digilitalera irauli da hein handi baten, honek berekin dakartzan erraztasun guztiekin, edozein hitz, hizki, hitz-kate edo esamodu kontsultatzeko orduan. Iraultza honek denetariko informazioa eta ugaria jarri digu eskuraerraz, hizkuntzakoa zein edozein jakintza-arlotakoa. Lehen artisau-baliabidez neke handiz eskura genitzakenak baino testu-multzo askoz handiagoak erabil ditzakegu modu ordenatu baten, eta eurtan askoz bizkorrago idoro edozein datu, behar diren inguru-zehaztasun guztiekin.

Euskararen kasuan hor ditugu kontsultagai, ez bakarrik literatura-testuak, baita ere hitz-korpusak –hiztegiak eta bestelako korpus sailkatuak, errefracu- eta esamolde-bildumak–, gramatikak, dialektologiaren ekarriak, langai didaktikoak, onomastika korpusak... eta bide beretik erabilera zuzena bilatzeko sortu diren aholku-leihoak.

Bibliografia bilatzea bera da, bestetik, asko aurreratu den arloa. Gure biblioteketan, idazle, obra edo gai baten gaineko informazioa bilatzeko ia alper antzean daude paper-fitxak. Zein obra eta zein edizio dagoen eta non, pantaila bidez ikas dezakegu erraz. Nork zer, zeren gainean eta noiz idatzi duen jakiteko ere ez dugu beti bibliotekaraino joan beharrik; datu oinarritzkoak jaki-

(1) Nagore Etxebarria (2005): *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)*. Jarein, Bilbo.

teko gutxienez; badira biblioteca birtualak. Besterik da, ostera, halako obra eta halako testua irakurri edo aztertu nahi badugu. Bibliotekak baduela, eta gero-
ra ere izango duela esan nahi dut, ordezkatzeko zaila den egitekoa.

Informazio-ugaritze horrek eta berau bilatu eta erabiltzeko dugun erraztasunak, ez dakar hala ere gehiagoko barik jauzi kualitatiborik hizkuntzaren erabileran, aldi baten Plazido Muxikaren hiztegi elebidun mardul hark, informazio ugari eta sailkatuaz gainera, ekarri ez zezakeen bezala, baldin kontsultagilearen adimen zuhur eta bereizlea tartean ez badago hautua egoki egiten jakiteko. Aurrerakuntza informatikoez dakarten informazio-ugaritasun hori modu zuhurrez, bereizgarritasunez eta epai zorrotzez erabiltzean datza, hizkuntza idatziari, eta beraz hizkuntza kalitateari, hortik datorkiokeen emendio-onura.

Hizkuntzaren gaineko datuak arin eta erraz jakin daitezke, nahi den ertetik oratzen zaiola: hitz, atzizki, aurrizki edo egitura konplexuagoak bilatuz; oraindino orain urte batzuk nekez egin zitekeen gauza. Oraintsura arte, edo fitxategi manualak, edota irakurle handia zen ikertzaileak buruan gordetzen zituen datuak ziren ikerketaren eta estilo-hobekuntzaren funtsa, Mitxelena, Lafittek, Akesolok, Mokoroak eta bestek ohi zuten antzera. Gaur egungo testuen digitalizazioak eta datu-base zehatz eta ondo ornituen sorrerak goikoz behera aldatu du panorama. Informazio ugari ondo sailkatu horrek, ez bakarrik balio du ikerketa zehatz eta sakonago egiteko, ezpada batez ere hizkuntzaren birrerabilera egokiago eta aberatsago baterako. Eta bigarren hau dugu oraingoan xede.

Prozesu hau etengabea dugu, bestetik. Aldiro doa ugaritzen gure material korpusa; hor idoro daitezke, bere aldiaren zabalkundea ezagutu zuten obren ondoan, urria edota ia ezagutu ez zutenak ere; liburu formatoz atera zirenen ondoan, liburuska gisa, plegu gisa edota aldizkari xumeetan barreiaturik –eta erdi galdurik– diren idatziak ere. Mokoroaren «Ortik eta Emendik» dugu diodanaren adigarri zuzena. Esan gabe doa ere, ediziorik ezagutu ez duten testu zenbait ere prozesu honi esker kontsulta daitezkeela, noiz eskuizkribuaren irudiaz, noiz testu transkribatuaz. Prozesu honek erraztu digu ere, begi aurrean edo norbere eskuetan izaten zail baino zailago diren testu-edizio zaharrak, batzuetan lehen edizioak, pantailan ikusi ahal izatea, edizio faksimil bat bailitz lege.

Errealitate berri honek, dena dela, ez digu –testuez eta euskal testuez ari baikara–, beste bat ahanzarazi behar, eta filologo naizen aldetik seriotzat hartzen dudana: testuen fidagarritasuna jagoteari hartu behar zaion ardura estua, testuak beste barik hedatzeari baino gehiago. Euskararen kasuan, hizkuntza nagusietan baino areago, gure testu zahar eta klasikoen bertsio egokiak eskaintzera behartuak gaude, dugun urritasunean testuok hartzen duten balioa handiagoa delako, bitxiagoak direlako gure literaturarako euren apalean, maila bereko testuak hizkuntza handietan baino.

Azken hamarkada hauetan, testu klasikoen bertsio berriak atontzen arloak aurreratu dira, nahiz gure arteko edizioetan «kritiko» hitza gehiegitxo erabili izan den; batzuetan edizio ohardun soilak saldu ditugu kritikotzat, eta bes-

te batzuetan transkripzio literal direnak, are okerrago dena. Dena den, informatika eta interneta baino aspaldiagotik dator, euskal testu zaharren ezaguerarako funtsezkoa den edizio kritikoak antontzeko ohitura ona. Ahalegin hau oinarrian ez datza bestetan, euskarazko testuak ondo galbaheturik eskaintzean baino. Euskal Filologiak abian jarri zirenetik indarra hartu du ekimen horrek, azken 30 urteotan esan nahi da. Diogunaren lekuko ona izan daiteke, Patxi Altunak paratu zuen Etxepareren edizioa.

Filologo edo bestelako ikertzaileen ahaleginez, lehen eskuizkribu gisa artxiboetan gordेरik zeuztaten euskarazko testu asko atera dira aspaldion argitarara; eurotarik asko apalak. Bide beretik, aspaldiko edizioak testu fidagarriago eta azertuago batez berrargitaratu. Unibertsitate giroko testu-ikerketak eta gure espezializazio-aldizkarien sarea izan dira prozesu hau gorpuztu dutenak.

Lehendik ere bagenituen arlo honetan zenbait bide urratuak, egia esateko. Dogson, Azkue eta berariaz gure Julio Urkixo gogoangarriak sortu zuen *RIEV* aldizkaria. Hura izan zen XX. mendearen zati on baten euskal filologia ikerketen zuzi bizia. Espainiako guduaren ondoren, askoz beranduago etorriko ziren beste batzuk: *FLV*, aldizkari horrek sorreratik gehiago egin duen lan luze bezain mardula ez baita oharkabe uztekoa; *ASJU* aldizkaria, eta oraintsuago sortu ditugun *Litterae Vasconicae*, *Lapurdum* eta beste batzuk. Ildo honetan, Ifarraldean ere ez dira bazter uztekoak Lafitte-n edizioak eta *Gure Herria* aldizkari xume hark luzaroko denboran argitaratu duen testu corpus aberatsa.



Aldizkariokin batera liburu-bildumak ere sortu dira, bat edo bat faksimil erara testuak ematen zituena, baina beste batzuk testu iragazi eta ikertuak eskaintzen zituztenak, batzuetan grafia zaharraz, besteetan gaurkotuaz; eta testu iragazia eskaini ez eze, eurotako hitz, esamolde eta sintaxi-egiturak erakutsi eta aztertu ere bai maiz.

Bestetik, ezagunak ziren testuen edizio kritikoak ere eginak dira –ezezagunak zirenenak bezainbatean–, eta horrek mesede itzelezkoa egin dio testu-finkatzeari: eta jakina da, testu-finkatzeak berekin dakarrela hitzen, hitz-aldaeren, lokuzioen, esamoldeen eta sintaxi-egituren finkatzea. Eta galbahetze-lan horrek bermatzen du ondoren hiztegitintza, eta literaturgintzan hitz-lokuziook birrerabiltzeko zimendu sendoak ezarri.

Tradizioko testuen berrirakurtze eta berraztertze sakon bati esker ikasi ahal izan dugu sakonago gure lexiko-ondarea, eta zentzurik zabalenean, hitz eta esamoldeen erabilera zer-nolakoa izan den mendez mende; ikasi dugu zerk duen sustraia eta zer den beranduan sortua bereizten; zerk duen maiztasuna eta zer den bakan edo mehatz azaltzen dena; zein itxura diferente edo aldaera dituen hitzorek hango edo hemengo tradizioan, eta beraz zein beste aldaera diren azalekoak, horretara gero idatzirako hautuak edo gomendioak egiteko ere bidea argitzen digula; zein esanguraz erabiltzen den halako lekutan edo testutan, eta zein diren hitzorreraren esanguren artean zaharragoak edo berriagoak; tradizio idatziaren bidez ikasi dugu halaber hitz batek aldamenean ze laguntasun duen, zein testuingurutan azaldu izan den eta zeinetan ez. Berba baten esanda, tradiziko testuen azterketa geldiroaren bidez jakin dugu, euskal hizkuntzaren izaera berezkoa aldan aldan zein izan den, artean inoiz baino zeheago eta sakonago.

Lexiko eta gramatika arloetara mugatuko naiz ondoko oharrotan.

4.1. Lexikoaz

a) Testuak geldiro eta arduraz irakurriaren podazuz ikasi dugu, badirela zenbait hitz konplexu, eratorriak edo konposatuak izanik, hiztegieta osorik ageri ere ez direnak, baina berez sarrera zor zaienak, erabileraren arabera. Badira hitzak, berez lexikalizatze-maila aurreratua izanagatik, duten itxuragatik batzuetan konposatu libretzat jotzen direnak, edota forma deklinatutzat beste batzuetan, gehiagoko barik.

Hiztegiak egitorduan testu idatziei behar besteko arreta jarri ezagatik gertatu dira gurean ere halako hutsuneak, batez ere *OEH-DGV* etorri aurretik. Baina hiztegi arauemaileek ez ohi die jarri behar adinako ardurarik hiztunek eta testu idatziek lexikalizazio gradua ezagutu dien hitz-kate askori.

Horiatarikoa dugu, Moglek *PAb*-en darabilen *aldabatera* (59) aditzondoan, beste idazle batzuek *alde batera*, banan edo batera idatzi ohi dutena, «era-

batera», «batera» edota «jeneralean» esanguraz. Hiztegieta nekez du sarrerarik *alde* hitzaren azpian ez bada, nahiz Mogelek lekukotu hitzori gaur ere indarrean dagoen eskualde berorretan (2).

Alper eta *alperrik* hitzak, sarreraz edo azpisarreraz guztiz ezagunak izanik, nekez idoroko ditugu ostera, *alper egin* edo *alper izan*, gure idazle klasiko batzuen artean aditz lokuzio horiek lekukotasun abonatuak izan arren (3).

Mogelek *guztientzakua* finkatu zuen erlijio esparruan, gaztelaniazko «católico, general» kontzeptua aditzera emateko: *Elexa Ama santa Guztientzakua* (*PAb* 102), dotrinako kredoaren («Sinesten dot») euskarazko bertsioa ematerakoan. Egia da, oinarrian morfologia ikuspegiz hitz hori *guzti* hitzaren forma deklinatua baino ez dela, baina idazlearen ahalegina urrunago joan zen lexiclizatze mailan: *guztientzako* hitz eratorri legez finkatu zuen, garaiko jakintza giroan jada finkaturik zegoen kontzeptu bati ordea emateko. Besterik da hitz horrek gerora izan duen arrakasta handiago edo apalagoa, baina zentzu-esparru hori adierazteko finkatu du gure literaturak, eta ez okerreko bidetik.

Antzera esan daiteke, J.M. Zabalagan idoro dugun, baina gauko hizkeran ere bizi-bizi dagoen *alkarregazko(a)* hitz eratorriaren gorabeheran ere, (giza-)harreman edo erlazioa adierazteko ordezko finko modura erabilia; eredu batuan *elkarrekiko(a)* genduke. Hiztegieta *alkar/elkar* sarrerapeko forma deklinatu soil modura erakusteak ez du behar bezala bermatzen, eratorri horren nor-tasun lexiko-semantikoa (4).

Honekin ez dut erakutsi eta sendotu baino egin gura, lehenagoko gure idatziek irakurketa zehatz eta geldiroa eskatzen dutela, testuaren osagarri diren egitura guztien aditze on baterako eta hizkuntza-unitateen finkatze egoki bati buruz, beti ere aldiari aldiango ekarriak geuregantz den ditugula.

b) Gure testu idatziak oso eta zehatz ezagutzeak lagun diezaguke ere ondoen euskal hitzen historia jakiten, zein noiz datatzen den hurrengorik hurrengo. Maiztasun handiko hitzetan ez ohi da arazo gehiegirik, baina gutxi edo bakan idatzi izan direnetan, ez dio berdin halako hitza XX. mende beranduan lekukotu izan, edota XIX.an, XVIII.an edo aurreko menderen baten. Eta euskarak euskalki eta azpieuskalkietan barrena duen dibertsitateaz kargu hartzen badugu, eta endemas hitz batek bizirik badirau oraindik han edo hemen, ezinbesteko erreferentzia bihurtzen da tradizio idatzia hitz baten itzala neurtu orduan; ez bakarrik hitz horren historiatxoa ezagutzeko, baina batez ere horren literariotasuna bermatzeko.

(2) Ondarroako lekukotasuna dut nik.

(3) Juan Mateo Zabala bilbotarraren erabilera bi lekukotzat:

Alper egin: «Ay! Itxiko ezpaleutse (gurasoak) umeai *alper egirik* ibiltzen» (*Irun* 110).

Alper izan: «Ay! gaixoak! *Alper da*; etzaree onduko arimako medikuaren esanak egiten eztozuezala» (*Irun* 55).

(4) «Gurasoacaz cerbait izan daveelaco, edo eurac gaitic iñoc deungaroren bat esan badeutse, atzeratu, ta *alcarregazcoa* ausi eguiten daveenac» (JMZab *Irun* 99).

Lehen esandakoari atzera eraginez, asko dira oraindik eskuizkribuetan edota berandu ezagutzera eman diren testu zaharretan, hor-hemen sakabanaturik dautzan hitz eta aldaerak. Bat edo beste aipatzeko:

Hegapetu hitza, «proteger», Azkuek Añibarroren *VocBasc* bildumatik jaso bezala damaiguna, eta lekukotasunik zaharrenekotzat dagoena, hala zen, harik eta 1638 inguruan –180 urte inguru lehenago beraz– Juan Bautista Alzola Muntzaraz elizgizonak Domingo de Egia deustuar armagizon handiaren gorazarrez ondu zuen poema epikoa ezagun egin zen arte, orain hogeitaka urte (5).

Aldauri, «arrabal, albo-auzo» adieraz Azkuek Bizkai partean jaso zuen hitza, eta polita zeritzalako idatziz erabili zuena, pozzgarria da jakitea 80 urte inguru lehenago Zabalak erabili zukeela «auzo, auzo bakartu» esanguraz (6).

Hitz-aldaeretan ere guztiak ez dira zaku berean sartzekoak. Hala esaterako, *dustik* ebakitzen dute Bizkairik sartaldeeneko euskaran besteok *guztiak* dioguna. Edo *gedar egin*, besteok *deadar* dioguna. *Elexar* Nerbioi aldean, besteok *lexar/lizar* dioguna. *Idargi/irargi/iretargi* aldaerak ere ezagunak dira sartaldean «hilargi» hitzerako. *Sugate* ere hor dugu, agian gaur bizi ez dena, *sue*te zabalagoaren ondoan. Idatzi zaharretan ageri direlako dakigu aldaerok guztiz zaharrek direla: *dusti*, *gedar*, *errezal* eta *sugate* (7). Baina ez dira maila berekoak *didar*, *itargi* eta *suite/sute* aldaerak, paraje batzuetako hitzunez gaur hala darabiltzatenak. Testu zaharrek erakusten digute, bada, hitzen itxura zahar direnak berrietatik bereizten; aldaeron itzala neurtzen, beraz.

c) Artean argitara gabeko testu bat plazaratzen delarik –berariaz zahar edo aspaldikoa denean–, ez ohi da batere zurtzekoa, idatzi horretan edo hitz ezezagun bat, edo adiera berezia duen hitz ezagunen bat, edo hitz-aldaera bereziren bat idorotzea, gure hiztegietan hor dukeen balioaz erregistratu gabea.

Oraintsu arte ia jaso gabea zen, esaterako, Lazarraga barrundiarrak behin eta berriro darabilen *utra*, guk «oso, guztiz, txit» hitzez ordezkaturiko genukeen graduatzailea. Beronen azterrenik nekez aurki zitekeela-ta geunden, harik eta Kapanaga mañariarraren doktrinan (1656) *utra* eta *ultra* biak erabilirik ikusi genituen arte, bata Lazarragaren adiera berberaz eta bestea konparazio-graduatzailaren balioaz, «askoz, askozaz» zentzuaz (8). Testu zahar biotan bai,

(5) Arejita, Adolfo (1983): «Cancion Vizcayna...». Domingo Egikori gorazarre kantua», *Euskeraren Iker Atalak*, nº 2, Bilbao, Labayru Ikastegia, 137-181: «Paciencia andiagaz, [au]çoen buruac / vrian ondo daucaz *egapetuac*» (33-34).

(6) Cf. «arako gizon-emakume sutsu, aserrekor, bake txarrekoak, auzotegia, *alda-uri* edo etsadi guztia, eta bear bada erria, goikoaz beera darabildeenak» (JMZab *Irum* 128).

(7) *Errezal* Landuccionen hiztegian, *sugate* RS-en, besteak beste.

(8) *OEH*-aren azken tomoan jasorik dago, dena den.

Cf. Kapanaga: «Ea ceimbat bider sarri dan peliburuan, ez ençuteco, cerren egon çan, *vtra* veranduguño bere erruz, ceinda içan çan suerteia idaraiteco meça.» (96), «Ea erioçaco peliburuan bere burua ifini daben, Iaungoicoa tenteetan dabela, causa *vtra* andiabaga, eta necesidadde бага» (102), «cerren içanic ain andia, fin bacoa, da andiago, eta *vtra* ventaja eguiten dabena fin

baina gerokoetan ez agertze horrek, batetik hitzorren zahartasuna eta leheneko bizia erakusten du; bestetik aldi zaharretan zukeen hedadura: sartalde gutzian barreitua zegokeen, beharbada; edota gutxienez ere, mende baten alde gorabehera, Mañariko Durangerriko berbaerak eta Urkiolan gora joanda, goizabaldegikoak bazutela kidesasun hertsia; denean ez bada, gauza askotan. Edo sarriago jazotzen dena: hitz edo hitz-aldaeraren bat, gure korpus ezagunetan ageri den baino datazio zaharragoaz agertzea.

d) Tradizio idatzia dugu, bestalde, hizkera landuak izan duen eboluzioaren lekuko pribilegiatua. Gure idazlerik onenek, eta berariaz euskarazale handi izan direnek, ez dute mugatu euren eginbidea, lehendik, ahoz edo idatziz, jaso dutena transmititzera. Hizkuntza sortu edo garatzeko ahalegina ere egin izan dute, lexiko arloan batik bat.

Euskarari ere, beste hizkuntza garatuago batzuetan bezala, idazle batzuen alde honetako sortze-ahalegina emankorra eta aberasgarria gertatu zaio. Gure idazle klasiko trebatuen artean, bistan da neologismoen maila gainditzeko ahalegin apartekoa izan dela. Beste hizkuntzetatik hitzak beste barik hartzeari errazkerian jaustea zeritzaten nonbait, edota, batez ere erromantizismoaren giroan, euskararen barne-ezaugarri edo barne-ahalbideei uko egitea. Holako idazleek uste



baga ene pecatuen grauedade, eta anditasunari» (117), «Echerean urten daguianean leelengo vidadea içango da elexara (*vtra* urrin vici ezpada)» (124).

«ea saldueban difuntuen gauçaric menos preciotan, eta balioeban baño *ultra* guichiagotan» (Dot 1656, 114).

zuten euskarak bazituela bere erroetan eta egituretan ahalbiderik asko hitz berriak garatzeko, aldiari erantzunak ematen zuten hitzak, hartan ere.

Sorkuntza-ahalegin horren beste ezpal bat, hitz berriak sortzea baino gehiago, jakintza arloko edo modernitate giroko kontzeptu jakin baterako hitz jada ezagunak birrerabilteza izan da; hori ere munta handiko lana hizkuntza-aren etorkizunari buruz.

Noizbehinka, sortu beharrezkoak sortu beharrez nabarmenkerian ere erori dira delako idazleok, batez ere XIX. mendearen azken laurdenetik honantz, bereziki Larramendiri eta Arana eta honen jarraigokoei men eginez jardun zutenak, eta kalterik gehien jarraitzaile itsu-itsuak izan direnen eskutik etorri da. Baina hitz-sorkuntza hori gehiegikeria handiegi barik egiten zen aldi zaharragoetan, hizkuntza-aren senetik hurbilago zebilen hitz-garapena zenbait idazleren eskutik.

Eta hitz-sorkuntza hori, hiztegi bidez barik, testu bidez egin denean –sorkuntzazkoa dela nahiz itzulpenazkoa dela– are handiagoa da haien balioa, gure ustez. Era horretakoa izan zen, Axular, Mogel, Uriarte, Arrue, Hiriart-Urruti eta beste hainbat ahalegina.

Mogelen hitz-sorkuntza adibide gutxi batzuekin on egingo dut diodana:

Arantzatu aditza, Larramendik hiztegiaren jasorik dakar, hiztun arruntak behar bada «arantzaz bete» edo «arantzaz josi» erabiliko lukeen lekuan sorturiko eratorria. «Burua *arantzaturik* / daduka Jesus onak» dio Mogelena delakotzat dugun Jesusen Pasioko bertso-konposizio batek. Agian lehenengoz literatura-testuan txertatzeak hitz hau gure hiztegi-ondareko bihurtu du.

Astintasun hitza, «vanidad» adierazteko lehenengoz darabilena ere agian Mogel dugu, «harrotasun» hitzak jada hartuak zituelarik hurbileko beste gune semantiko batzuk. *Astin* izenlaguna adiera horretan ezaguna izateak ez dio meriturik kentzen idazleak izen abstraktoa sortzeko izan zuen burubideari (9).

Betiraune eta *betirauneko* idoro daitezke idazle beronen testuetan, «betierekotasun, eternitate» izenaren eta «betiereko, eterno» izenondoaren ordezkioak emateko. Gutxi darabiltzan hitzak izanik ere, eta gerora ere arrakasta gehiegirik izan ez dutenak seguruenik, edozelan ere Larramendik eihoriko *betiraunde* baino hobeto eraikiak eta erabilgarriagoak dira dudatzeke (10).

Berba-jardun, berez hiztunentzat arrotz ez zatekeen hitza, kultura-kontzeptu biren ordainez darabil. Batetik «alokuzio» edo gaur egungo «meeting»

(9) Mog: «Banidadia, edo *astintasuna*, antustia, lagunen desprecia, edo guchiagotzat eukuitia, inoren mampetasun ez gura izatia, ipocresia, edo on irudi naia» (DC 244).

(10) JAMog: *betiraune*: «Da necaldi, edo tormentuzco Su-leza bat, nun pecatu mortalian illten dirianac dagozan Jangoicua icusi baga, ta Diabrubacaz battera erreten *betiraune*, edo Eternidade guztian» (DC 53), *betirauneko*: «Cegaitic dinozu Jangoicua dala *Betiraunecua* edo Eternua?» (DC 11).

esanguraz, baina inoiz pluralez, *berba-jardunak*, «dialogoak» literatura-generoa izendatzeko ere (11).

Administrazio eremuan, «público» izenondoari *guziakiko* hitzaz ematen dio ordaina, deklinazio-atzizkiz eratorririko hitza (12). Zuzentasun eremuan, *agertzaile* eta *esanlari* darabiltza gutxienez «testigu» adierazteko, eta *epaie-mola* «juez» edo «epaile» izendatzeko (13). Matematika eremukotzat jo ditza-kegu *zeinbatu* eta *zeinbatusun* hitzak (14).

Metodologia jakinaz eraikiriko hitz-sorkuntza dugu hemengoa azken baten, hizkuntzaren garakuntzan benetako arrakasta izan duena, emaitza batzuen edo besteen bidez: hitz edo hitz-erroen eratorikuntza edo elkarkuntza bidez egina.

e) Gure literatura idatziak baditu emaitza batzuk «ordezkotza bakarra» suposatzen dutenak euren ingurunean. Zenbait autore edo obra badira, euskalki bateko ez bada ere, azpieuskalki bateko ia ordezeko nagusi edo bakar gertatu direnak. Zertzelada honek leba handia izan dezake, zenbat eta hizkera hori bereziagoa den edota hizkera jakin horretako ezaugarriak obra baten ugari eta ondo islatzen diren.

Denbora klasikoari dagokionez, Lizarraga Elkanokoarekin kasuak balio dezake Iruñerriko, edo Oinatiko Arrazolako eskuizkribuenak hiri hartako euskararako, edo Paulo Ullibarri Abandoko errementariarenak Arabako Oken- do alderako, edo oraintsuagora etorrira, Arrese ta Beitiarenak Otxandiorako edo Paulo Zamarriparenak Txorierrirako. Holako ordezkotzaz josita dago gure literatura guztia, hasi ekialdetik eta sartalderaino. Horrek halako lehentasun balioa ematen die idazle eta obra (edo idatzi) askori, euren kalitate literarioa- gatik baino gehiago, den lekuko hizkerari doakion bezainbatean.

Bizkai sartalde inguruan zabalago zebilen aspaldi, maileguzkoa datekeen *abundo/abondo* hitza, «ugari» esangurakoa. Azkuek bere *Supl* horretan Arra- tiako berbatzat jasorik dakarren hau, aldi zaharragoetan hedatuago zebilen, Ba- rrutia Mondragoeko eskribauak bere teatroan baitarabil (15). Harrezkero Hego- Uribe aldeko hizkeraren lekuko on diren Añibarro eta Zabalari itxaron beharko diegu honen azterrenak berriro aurkitzeko, eta gainera, bakoitzak aldaera ba- narekin darabiltela *abundo/abondo* hori (16). Hitz honetan ere, hizkuntzen his-

(11) Cf. «Zer esango ete dau dakusazanean *berba jardun* oneek Jaun-done Pedroren Ser- moia atera, edo euskeratuten abiau zanak?» (PAb 153), «Germanikoren *berba-jarduna* Soldadu matxinatubai» (PAb 141).

(12) Cf. «Oficio publico edo *guciaquicoa*» (JAMog CB 197).

(13) Cf. Testigu: «*Aguertzalle*, edo testigu zucen ta achaquija bagaacaz» (Ip 2), «eruan ci- tuban testigu, edo *esanlari* eder oneec Aguintari Jaunaren aurrera» (Ip 2).

Epaile: «Aguertu cirian *Epaie-mola*, edo Juezaren aurrera» (Ip 2).

(14) Cf. «*ceimbatasuna*» (CO 30, 1), «*ceimbatu* edo contetia» (CO V, 2).»

(15) «Sagarraq bere, eziran falta, / mispil usteloq *abondo*» (Barrutia, 12).

(16) Cf. «Nai leuquee, guztia ugari, *abundo*, ganezca, eceren falta barga euqui». (Añ *Mis* I, 82), «Baya Yaungoicoa aberatsa da, ta bauco ac, bai, *abondo* cer emon» (Zab *Irun* 89)».

torian ezaguna den lege edo joera bat frogatzen da: forma zaharkituok bazterretan dirautela luzarago erdialdeetan baino.

Zabala bilbotarraren idatzietan ageri diren zenbait hitz, oraindik ere bizkai sartaldeko hango edo hemengo hizkeran bizirik daudenak, nekez ikusten dira idatziz aldi bateko testuetan, eta harrezkero ere bakan. Hala *adia/adiak artu* (asmoa hartu), *abaro* (arbolapeko aterpea), *altsi* edo *altsi egin* (dindirri / trapuzahar egin), *alazoko* (bikain, ezin hobe), *afo* (astin), *ameneko* (beharbada, agian), *arean* (apur bat) bezalako hitzak, gaur egun ere bizirik daudenak baina bitxi samarrak direnak, XIX. mendearen lehen erdiko testuetan lekukotzeak halako egitasun-zigilu bat damaie hitzoi, literatura bidez transmititu izanaren arrazoiagatik.

f) Aurrekoaren haritik, testu zaharren artean zabiltzanean, kilikagarria gertatzen da, horietariko baten halako hitz bitxi eta artean gutxi erregistratua idorotzen duzularik, gerora ikasten duzunean oraindik ere erabilia dela non edo nongo hizkeran.

Hala gertatu zitzaidan niri behinola *txil* hitzarekin, Azkuek bizkaieran eta ahoz bakarrik jasorikotzat dakarrena, XVII. mendeko hitz neurtuzko testu baten aurkitu nuenean harako: *Deragiegun artean txil eraso / armaen indarragaz kristiau oso* (EgiaKanta 79-80).

Aurrerago, Mogelen testuekin nenbilela eta zenbait hitz bitxi, han azaltzen zirenak, oraindik ere hiztunen artean, gutxi baina erabiliak zirela ikustean, antzematen nuen bazela oraindik zubi sendo bat gure idazle zaharren eta gaur egungo hiztunon artean, eta begitantzen zitzaidan horrek ematen ziela, besteak beste, iraunkortasuna eta gaurkotasuna idatzi zaharroi; mendeen joan-etorria gorabehera, lehena eta oraina ez zirela hain urrun, ez zirela elkarrekin hain arrotz.

Halako hitzak ziren nigan oihartzun egiten zutenak: *eskepe* «aterpea», *erroi* «belea», *ezain* «itsusi», *txito* «oso, guztiz», *on egin* «fedea eman, bermea eman», *salobre* «jatu handi», *ajutu*, testuetan *adiutu* ere datorrena, *tru-xu* «euri-zaparrada sendo» eta beste horietariko asko.

Zabala bilbotarraren adibideetara gatozela, aipa dezadan, beste inon nekez edo gutxi lekukotzen diren eta ahoz bizi diren hitzak, Uribe aldeko euskarakoak, inon aurkitzekotan harenean idoroko ditugu. Hala, gaur Arratiatik kanpora nekez entzuten den *aitaxe* hitza (17). Nik txikitatik ikasi dudana *aldar* hitza, «aldasbehera pikea» adierazteko, hark erabilirik ikusi dut (18).

(17) Cf. «Arako gazteak irugarrenez gauza bera entzun ebanean, eta agureak aurrera bere esateko bideak eroazala, esan eutsan: «*Aitaxe*, ori gauz'ori bein ez-eze, birritan bere iminirik daukat.» (JMZab *Irun* 182).

(18) Cf. «eta alde onetatik eta guztietatik pekatuz ase ta bete egiteko *aldarra* auspez [aldats beera] andia ta bide zabala» (JMZab *Irun* 78).

g) Gogoeta berari gautsala, egin dezagun kargu, lehen zein orain, euskaldunotan badela hiztegi, hiztegiño, hiztegi-gehigarri, glosario, lexiko tematiko eta antzekoak ontzeko joera handia –ia tradizio bihurtu den zaletasuna–. Sarritan hitzun zaharrengandik jasoriko hitzak izan ohi dira, leku jakin batzuetakoengandik maiz. Beharleku horrek duen merituari ezer kendu barik –gure ondare-aberastea dakarren ereduan–, dirudi batzuetan, galdu aginean dauden tresna zaharrak betiko aldendu baino lehen museorako biltzen dihardugula, oroigarri prezituak balira legez. Idazleak baino gehiago, gramatikari, hiztegi-gile eta halakoak izan dira gure artean, aspalditik eta zaletasun handiz, inon diren hitz, adizki edo esamolde bitxiok batzen ekin diotenak. Gaur ere horretan aurrelari garela esango nuke, ia ugazaba eginda gaudela.

Hala gertatzen da ondorioz, gure hiztegi, glosario eta enparatuetan hitz ezezagun, bakan edo bitxi asko zerrendaturik azaltzea, testuetan edo ageri ez edo bakan baino ageri ez direnak (19).

Baina honetan guztian pozkaririk handiena izan ohi da, hitz bakanotari-ko bat idatzi zaharren baten testuraturik idorotzea. Ikertzaileari poza eta hitzari sinesgarritasuna eman ohi dio testu literarioan normaltasunez sarturik ikusteak. Hitzaren literariotasun-maila darakus horrek. Eta aldi modernoagoetara etorrita, hori izan ohi da idazle handien meritua ere: hizkuntzaren harrobi ondargabe horretatik bitxirik ederrenak esleitu eta hitz-esapideokin testu sortu berria brodatzea.

Autore klasikoen artean, Mogelengan dakusat eredurik bikainena. Idazle honek, hizkuntza jakinminak eraginda, hitz-glosario bat baino gehiago ondu zuen, arreta berezia hartzen zuela halako bakantasuna zerien hitzei. Ondotxo dakigu, *PAb*-en atzean dakarren *Nomenclatura* ez dagokiola berez testuari; hango hitz batzuk badarabiltza berba-jardunetan, beste asko ez. Baina egiaz, zerrendan berezitat jo duen hitzori, hitz bitxiori testuan dakusazunean, orduan hartzen diozu benetako balioa. Hala darabil testuan berak zerrendaturiko *darda gainian* esapidea, Peruren ahoan: *darda gainian erabilli daruadaz ardao-saltzallak* (PAb 1). Edo zerrenda berean dakarren *arretondo txarra egin*, alegietan txertaturik: *Orduban, arretondo txaarraz, begirakune astun ta albo-kerako bategaz* (Ip 1). Edo zerrendako *arkuntza* hitza bere idatzietan: *Au dinozu arkuntza guztietan, ta zoro zoro zanzubez nekezale gaxuak* (PAb 8), beste askoren artean.

Hiztegi-glosarioetako ekarri hori da gure idazle batzuk ondo baliatzen jakin dutena –aipa dezadan Eusebio Erkiaga–, eta gaur egungoentzako ere erakusgarri ezin hobea.

h) Tradizioko testuen lekukotasunak dira beti, gurean ere edozein hizkuntzatan bezala, hitz batek izan ditzakeen aldaeren artean adiutuena hauta-

(19) Azkuegan edo *OEH*-an apur bat azterka egitea nahikoa da, diodanau frogatzeko.

tzeko epaibide argiena, batez ere zalantza gogorrek gertatzen direnean itxura baten edo bestearen artean. Sarritan morfologiarik gardenena duena izaten da forma tentagarriena, bat hautatzeko orduan, baina ez ohi da beti erabiliena, ez indartsuena. Tradizio idatziaren gerizak erabakiorra behar du izan halakoetan. Adibide bat edo bestez sendotuko dut diodanau.

Daigun, Mogelek *PAb*-eko atze-zerrendan dakarren *apapuan* (*apapuban bizi*), «dena beharrean, ozta-ozta (bizi)» adieraz, eta gipuzkerazko testuetan ere darabilen hitza: *milla gezur ta asmorekin ostutzen dizte arto edo gari zatiak beren jan-edan ta jokoetako, ta dabil etxea apapuan, zoorrak geitu, ta milla buruko miñen artean* (20). Nahiz *apo-apoan* / *apu-apuan* itxurak ere ezagunak diren hizkera batzuetan, ez al du merezi lehentasuna idatziz bermerik sendoena duenorrek, gainera ahoz ere bizi-bizi dirauenean?

Beste hainbeste esan daiteke *adobatu* aditzaz, «remendar», testuetan zein ahoz agian aldaerarik indartsuena, *adabatu* eta *arabatu*-ren aldean.

i) Tradizioko testuen irakurketa kritiko bat egitearen alde beste argudio bat ere ekarriko dut. Testu idatziek gurean bezain transmisio txatxarra izan duten kasuan, ezinbestekoa da hori. Eskuizkribuak idatzira eroan dituen transkribatzaileak akatsen bat egin izan duenean hitzen bat oker irakurritz, hortik sartu dira inoiz hiztegiatarara ere sasiko hitzak. Eta sasiko hitzokin, behin hiztegi batera ezker, gertatzen dena asmatzen ez da gaitza; behin albatea irekiz gero, hurrengo datozenek ere lehengoari eragiten diote, okerrrik egon daitekeela ere susmatu barik.

Ez dut adibide ezagunegiatarara joko, nola diren Azkuek hiztegian dakarren *arnari*, edo oraindik Arandatik Mirandara dabilen *ekidin* zorionekoa, Lino Akesolok maisu-lan batez astindua eman ziona. Ez eta Irigoienek *bailiren* aditz egituraren gainean egin zuen ikerketara. Mitxelena izan genuen holako desbi-deak bilatu eta aztertzen maisu, besteak beste Azkueren hiztegiaren azterketa kritikoa egin zuelarik (21). Baina on egin dezadan diodana, geure uztako bat edo bat dela medio.

Azkuek hiztegian jasorik duen *aginteta* hitza (22), Mogelen *PAb*-en I. argitaraldia (1881) atondu zuenak eskuizkribuan ia elkar ikutzen zeuden *aguin-te* izena eta *ta* juntagailua batera irakurri izanaren erruz sartu da hiztegiatan. Honetara irakurri beharrekoa zen: *Bacarric billa leiquee guichi batzuben aguinte, ta iñoren ondo izate bacarra* (*PAb* 139), eta hor etzen *aginte-z* gainera hitz misteriotzurik. Baina gure Azkuek hitz horri gure tradizioko beste batzuen antza hartu zion, *-eta* amaieradun diren *lapurreta*, *ameseta*, *barrizte-ta* eta halakoena. Harrezkero hor dabil sasiko hitz hori alderrai.

(20) Cf. Mog *CB* 249.

(21) Mitxelena, Luis (1970): *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Publicaciones del Centro de Estudios Históricos de Vizcaya (RSVAP). Bilbao.

(22) Azkue, R.M. (1905): *Diccionario vasco-español-francés*. Berrarg. 1969, Bilbao, LGEV, I, 12: <**Aginteta** (B, Mog.), mando>.



Idatzietan gutxi ageri den *errekoko* hitza ere Azkuek bere hiztegian *errekoto* bezala jaso zuen (23). Baina gaztetako hiztegi horren bigarren edizioa egiteko egileak berak prestatu zituen zuzenketa eta gehigarrietan oinarriturik, 1969ko edizioari L. Akesolok erantsi zuen gehigarrian, *Suplemento* deritzan horretan, *errekoko* forma jaso zuen, arteragoko errata zuzendu nahirik. Bigarren horrek dirudi zuzena, J. Mateoi Zabala bezalako idazle ziur eta herri-hizkera kontuan aditua den baten idatzietan behin eta berriro ageri dena: *Eguinta guero izan oi dira errecoacoac, errencuraac eta bildurrac* (Irun 29), *asco ibili oi dira guero umetaco deungaro ibilteac gogoratuta, euren artean kezcaz, ta errecoz* (Aranz 88).

Hitzen forma zuzen edo okerren auzi honetan, zurt egitekoa badirudi ere, egia da, euskararen kasuan, idazle bakan bat edo besteren lekukotasunaren pentzudan dagoela hitz-forma batzuen zuzentasuna; agian, garai batean, hitzok hiztunen ezpainenetan gaur baino askoz ezagunagoak izango baziren ere.

4.2. Lokuzioen eremura hurbil bagaitz ere, tradizioko eta ahozko erabileren lokarri estuaz berehala jabetu gaitezke. Eta zubi horrek dukeen baliorik handiena, agian, gaur egungo literaturara iraul ahal bagenitza esamoduok, ahozko eta tradizio zaharreko iturri bietan emai horrek iraun izanak balio biokitza baitu gaur egungo literaturan birrerabiltzeko ere.

(23) Ibidem, I, 266: <Errekoto (B, ms – Ots), escozor, recelo>.

Denbora eremuko esapide ugarietarik harturiko adigarri bat aipatuko dut: *inoizko denporan*, denboraren mugagabea adierazteko gaur egun ere erabilia den, baina klasikoetan ere ezaguna den egitura:

Eregiac, oneicaz zeure vizitzan *inoizco demporan* naastu ez zaitian, baizican biotz guztitic euracandic urrin eta beti iguesi ibilli zaitian (*Arraz I, 23*)

Heriotzeaz zerikusia duen beste esamodu bat: gertaera lazgarri hori modu leunagoz aipatzeko gaur egun ere hiztun zaharrek erabiltzen dituzte *gu ez garen denporan* edo *ni ez naizenean* legezkoak. Kasurako XVIII. mendeko testuetan ere aurki ditzakegunak balio beretsuaz. Esaterako Testamentua norbera ez den denborarako egiteaz hau diosku Oinatiko elizgizon zaharrak:

emen Testamentutzat aiqetan dogu guere artian, Guizonac, *bera ez dan demporaraco*, bere gauzen gañian vizitzan eracusten dabien, azquenengo vorondata (*Arraz I, 22*)

4.3. Gramatika arlotik joaz ere berdin lilura gintezke, tradizioko euskal testuetan idoro daitezkeen zenbait egituraren aurrean, sarritan zahar iruditu arren, uste baino modernoago direnak. Eta gure interesa ez dateke bakarrik, halako egitura hain lekutan, halako autoretan edo halako testutan idoro izana, askoz zabalagoa baizik. Egitura jakin batek noiztik noiza indarrean iraun duen ziurtasun handiz jakin dezakegu; baita ere gaur egun han edo hemen bizirik dirauen; edota egituraorrek aldakuntzarik jasan duenentz. Diogun horren interesa ez da, beraz, diakronia aldetikoa bakarrik, gaur egungoari ere badoakio, eta uste baino gehiago eta sarriagotan. Izan ere, tradizio idatziaren balio berdingabeetarik bat hau da: gaur oraindik ahoz darabiltzagun zenbait hitz, adizki edo hizki ilun samar nekez zuzen uler ditzakegu, tradizioko testuen argitan ez bada.

Euskal aditzen argumentu-egituretan denboraren igaroan gertatu diren aldaketak dira sintaxi-eboluzio honen lekuko ona. Batzuetan hizkuntzaren barruan gertatu diren jauzi edo joerei zor zaizkie aldaketok. Beste batzuetan, agian gehienetan, inguru hizkuntzetako joeren eraginez. Aditz bat edo besteren kasuak aipatuko ditut.

Aditu aditzak, kasurako, badu gutxienez zer-nori erregimen-egitura, itxuraz aspaldi zaharkitu horietakoa dena. XVI-XVII. mendeetako lekukotasun aspaldikoen ostean, hor aurkituko dugu berriro XIX. mendearen 20-30gn hamarkadan J.M. Zabala bilbotarraren eskutik, non esangura berezia duen *aditu* aditz horrek: norbait aditua izan zerbaitetan.

Contu onegaz, neure entzulaac: ez zuen buruti ibili, *ondo adietan yacana-gaz* itundu bagaric (Irun 30).

Jarraitu aditzaz ere antzeko bitxitasunak aipa daitezke. Ekialdeko erregimen zaharrak, nor-nori erakoak hain zuzen, flexio trinkoak dirauen ginoan berandura arte iraun du sartaldean ere –XIX. mende hasieran hor dabil behintzat–, baina ez, ostera, flexio perifrastikoa darabiltenean. Balia bekizkigu aditz trinkoen erregimenerako Mogelen testigantzak:

Gavaz *darraicuz* baso-chacur Acerijac» (Ip 16), «*Beerraiicozan* chacur, ta Eizarijac (Ip 32)

Berdin aipa genitzake giza-jarrera edo sentieren adierazle diren zenbait aditz, hala nola *zoratu*, *haserratu*, *damutu*, *garbatu*, *nahi izan...*; gure klasiko batzuen artean honetara ageri dira behin baino sarriago: *zoratu jako*, *haserratu jakon*, *damutuko jatzu*, *nahi izan dakiola*. Markinaldean, eta berdin beste paraje batzuetan ere, bizirik diraute oraindik holakoek; ez dira hiztunen nahiera berri baten adierazle, aintzinatik datorren hizkera tradiziozkoaren azterrenak baino (24).

Beste arlo bateko adibide batera jota, kualitatezko konparazioa egiteko erdi eta ekialde hizkeretan egitura ezaguna da *are ... -ago* delakoa, itxuraz eta idatzizko eta ahozko testu-korpusak arakaturaz gero, bizkaieran parekorik nekez aurki dakiokena, baldin *hainbat ... -ago* sinonimora jotzen ez bada behintzat. Baina, bai ahoz, bai idatziz, erabilerak ondo ikertuz gero, aurki daitezke lekukotasun bakan eta mehatz horietarikoak, ekialde-sartalde hizkeren artean itxurak erakusten duen baino kidetasun handiagoa zegoela frogatzen dutenak, eta funtsean beraz, delako egitura aldi baten euskararen sartaldekoa ere bazela frogatzen dutenak, *arebere / arabere ... -ago* aldaerapean. Erdi Haro beranduko eresi zaharretan badugu jada horren lekukotasuna (25). Eta hurragora etorririk, Zabala bilbotarrak emango digu berriro egitura horren arrastoa, eta ez inola ere gipuzkeraren interferentzia bidez jasoa, baizik Uribe aldeko herri hizkera bizitik (26). Eta are gehiago sendotzen da kidetasun hori, dakigunean Mungia aldeko hiztun zaharretan oraindik ere erabiliak direla egiturak (27).

Mugatzaile hurbilaren erabilera, pluralean (-*ok*) ez eze singularrean ere (-*au*, -*ori*) aspaldi zaharretik sartaldeko hizkeretan ahozko hizkera bidez zein testu zaharren lekukotasunez ziur dakigun gauza da, eta horrek gaur egun erabil dadin ere ematen duen bermea bertanbehera lagatzekoa ez da, inolaz ere. Gure eresi zaharretara edota oraintsu ezagutu dugun Lazarragaren idatzieta jo baino ez dago, mugatzaile hurbilaren, sing. zein pluralaren aldi bateko hedadura on egiteko. Gogora dezagun harako:

(24) Ondoko lekukotasunok balio dute: «Ez euquela intencioe charric; beriala *garbatu jaquela*» (JAMog CE 108), «Lenago nai izan daven gauzia, *damututen jaconian* ta *garbatuten jaconian* dauca vijotzac penia» (Bart Icas 3, 99), «Ez euguizu bildurric euqui *aserratuco jacola* larregui escatuten deutzazulaco» (PedAstarloa UD I, 169).

(25) Cf. «Egun bein vr jarruta / Ganboar seme lasterra, / *Are bere lasterrago* / Abendañuje Motela» (Mondragoe erretzea, TAV).

(26) Cf. «Baya kendu bearrean, atan atan bazagoz, lecu zabala emoten deutsezula benguetaco asmaciñoai, alangoric eguiteco gogoric artu ez arren, aguiri da zure biotzean gorrotoaren saguitea sarturic daucazula. Eta *ara-bere okerrago* badifiarduzu aren contra deungaro esaca: baaki- zula ceuc alangoari cer eguin bear lichakion: alan ta alan eguin bear lekikiola: kerella bat ecarri bear lichakiola: astin-aldi bat emon bear lichakiola, eta onelangoac» (JMZab Irun 167).

(27) Luis Baraiazarra jaunak Meñaka bere jaioterrian erabilitzat adierazia.

Oñetako *lurrau* jabilt ikara, / Lau *aragiok* bere an berala (TAV 3.1.9. Artazubiaga)

edo oraintsuan aurkitu Lazarragareneko beste hauek:

Silbia dama *galantori* / pena andiaz bizi zan; / Silberori on deretxana / akordatzen da askotan. (Lazarr 8r), Eta ala *ene lagunau* eta ni goaz ara, Silberoren jentilezak ekusterren (Lazarr 10v)

Har dezagun oraindik Bizkai partean bizirik dirauen *harean* (/ *harien*) kantitate-adizlaguna. Sartaldeko testu zaharretan *-rean* atzizki ablatiboaren hainbat lekukotasun ez bagendu, eta jakin *harean* hori *haretatik/hartatik* erakuslearen sinonimoa dela, nekez adituko genuke ondo hitz horren sustraia, *-rean* atzizki zahararen iraupen estalia. Edota Uribe-kosta aldean esaten duten *honetaringo* erakusle genitiboan –gainerako bizkaradunok *honetariko* esaten duguna–, erraz ikusiko dugu ez dela besterik *honetareango* baino; hau da, barruan *-tarean* ablatibo mugagabe zaharra datzala, beste sartalde-hiztunon erabileran *-tarik* datzan bitartean.

Bremengo hiri-musikarien herri-ipuina ezagunaren euskarazko bertsio bat dakar jasorik, J.M. Etxebarriak baturiko Gorbeia aldeko ipuin-bildumak, eta berean *zeinakio* adberbioa darabil:

Seinakio daosela, norantza artu estakiela, katu bet ikusi audien pago baten adapoan miau baten (...)

Ez bageneki testu idatzi zaharren bidez *ekin* aditzak bazuela bere joko bezekoa, eta *gakiozan* legezko adizkiak orain mende bi ere eurrezean erabiltzen zirela, gaitz izango genuke jakiten hitz ilun horren atzean *zeri nakio(n)* antzeko zerbait dagoela, gaurko erara esanda «zeri heldu, zer egin (ez dakidala egon)».

Oñati aldean gaur egun darabilten aditz laguntzaile iragankorra, kasurako *emun* aditzaz, (*emun*) *xao* egiten dute –gainerako sartalde-hizkeradunok *emon deutsa* edo antzekoa erabiliko genukeenerako–. Ahozko erabilera horren arrasto zaharrik apenas geneukan, oraintsuan Lazarragaren idatziak irakurri eta ikertu arte; han behin eta berriro irakur ditzakegu hauetarikoak:

Jaun zerukoai emaiten *jagot* / oi, asko geraziarik (Lazarr 1195 [41r1]), Semerik badeu, esaten *jago*: / - Aita, egidak jakea. (ibid. 42r2)

4.4. Gaur egungo ahozko hizkeren aniztasun horretan badira taiu zaharrekoak diren eta guztiz berrikoak diren hainbat forma, bai hitzetan, bai aditzetan, eta berdin morfosintaxiaren hainbat puntutan.

Perretxikoak bezala ugaritu dira aspaldion idatzizko erregistro diferenteak, hain lekutako hizkeraren ezaugarri ezin baztertuzko balira legez saltzen zaizkigula. Aditz jokoan ikusten ditugu *detsa*, *dotsa* eta halako hamaikatxo. Izen edo izenki mugatuen ebakera ere, *astue*, *astû* edo *astô* erakoak berdin, zein baino zein garrantzitsuagoak balira legez tokiko hizkeraren erabilera idatzirako.

Horretan ere tradizioko testuak dira erakusten digutenak, euskal hizkuntza, ahozko errealizazioak gorabehera, askoz ere batuagoa eta koherenteagoa

dela eta izan dela. Halakoetan *deutsa* itxura edo hurbileko aldaeren bat aurkituko dugu gehienez ere sartaldeko edozeinere idatzitan. Eta *asto* izenaren eredu mugatua, *astoa* edo *astua* bezala ia beti.

Badira beste hizkera berezitasun batzuk, zinez sakonak eta zaharrak direnak, eta hizkera baten gramatika-ezaugarritzat epaitu beharrekoak. Eman ditza-dan Leniz ibarreko hizkeren ezaugarri bat edo beste. Lexiko alorrean, aipatu berri dugun *emun* aditz-itxura, ez da hitzunen oraintsuko nahikeria bat, sustrai zaharrak dituen baina, Lazarragaren edo Arrazolako abadearen idatzietan –XVI. eta XIX. mende-haiseran beraz– forma arautu modura ageri baita (28).

Adizki bidez *nor* plurala ez markatzea ere eskualde horretako ezaugarri gutziz zaharra eta beraz berbertako bereizgarria dela, modu berean baieztatu daiteke. Lazarraga arabarraren eta Oinatiko Arrazolaren obrako adibide bi ipiniko ditut egiaztagarri:

Silberok ainbat sentidu eben, bada, Sirenak *esan eben berbaak*, eze erori zidin jarririk egoan sila baterean (Lazarr 6r)

Beti, neure biotzian *josirik zaukadan Aiskidia*, deutsudan amorio eguiatzkuak obligaitan nau, zuri ondo bizi izateko abiso batzubenk emutera; (...) zergatik, kapazidade onekua bazara ere, ezin aini ondo *ezagutu zeike zeure aziertubak eta uts egitiak*, nola zure onerako eta gobiernurako Jaungoikuak bere probidenzia santubagaz ifiñi izan dituban Kristaun aik, zeñetatik bat zeure Gurasuakaz batera, eta aikaz ostian uste dot naizala neu. (Arraz I, 1)

5. AHOZKOTASUNAZ ETA MINTZOAREN LITERATURA-BALIOAZ

Ahozkotasunari eskaini nahi nioke mintzadiaren bigarren zatia. Idatzia eta mintzoa, aldien joan-etorrian, elkarren lehian erabili izan diren iturriak dira, batean batari, hurrengoan besteari gora handiagoa ematen zaiela. Azken aldion, azken hamarkada honetan beharbada, esango nuke ahozkotasuna aintzat hartuago dagoela aurreko denboretan baino; bai gerraosteko mogimendu apaletan eta batez ere 70ganean eta hurrengoetan baino. Beste premia batzuei erantzun beharrez jardun zuten –horren beharra ere baitzegoen– aldi bateko *Euzko Gogo*a, *Jakin* eta enparatuek: euskara hizkuntza moderno eta zientzia arloetarako gai bihurtu nahirik. Agian *Egan*-ek hartu zuen aintzakoago ahozkotasuna ere, euskal literaturaren premia larriak ornitzeko hark ere bere gaurtxoa zekarrelakoan. Gerraosteko berpizte neketsu horretan *Auspoo* eta *Kulliska sorta* liburu-bildumak izango dira arlo horri ardura handixeagoa hartuko dietenak.

(28) «eze an gura dot neuronek *emun* / zuk agindu deustazun *şobrea*» (Lazarraga 3r), «Anso Garcias gasteluori *emun ez*» (TAV: 3.1.10. Sandailia).



Azken hamabost-hogei urteotan mintzairaz gehiago kezkatzen hasiak gara gurean ere, eta euskararen inguruan hizkuntza-kalitatearen behin(ago)tasuna aurrean ipini den unetik esango nuke areagotu dela mintzamenaren ardura hori. Baina ez da gure kontua bakarrik, ostera. Europa barruan ere ez dira falta antzeko sentiberatasunak (29).

Baina geurera gatozela, aspalditxorik entzuten ari garen leloa da: euskara idatzia gero eta indartsuago, ugariago eta arlo guztietara hedatuago doa baina, hizkuntza bizia, mintzatua, transmisio naturala atzeraka; eta gaztela-mintzodunen multzoa ugaria eta euskaldunena mehatza den eremuetan, are bizkorrago; eta euskara egiten dutenen artean ere hizkera geroz endekatuagoa, erdararen kalkoz josiagoa.

Edota beste lelo hau: euskara mintzatuak belaunaldi biren gorabeheran aldaketa bortitzagoak ezagutu ditu, lehen mendeetan ezagutu izan duen baino. Aldaketa horrek, hizkuntza guztiek ohi duten eboluzio berezkoa baino gehia-

(29) Alemana legezko hizkuntza sendo baten eremuan ere, «Plattdeutsch» darabilten iparraldean berariaz –oinarrian aleman literariotik urrun samar dagoen bestelako hizkera baita; hollanderatik hurbilagoa, nolahi ere–, galeraren beldurrez edota euren berezitasuna sendotu nahirik gizarte-gune batzuetan euren mintzaira tradizioaletik hurbileko testugintza hedatzen hasiak dira, batez ere irakaskuntzan, baina egunkarietan ere bai.

go, goitik beherako itxuraldatzea dirudi, eta den-dena erdara-hizkuntzek gaurko hedabide eta bestelako tresna indartsuen bidez gure gazterian duen eraginari esker.

Luzaroegian, euskaldunok eskola edo irakaskuntza bidez segurtatu uste izan dugu euskararen iraupena, eta euskara onuratsuagoa itxura baten; gure hizkera «narrats, ezertako ez den» hori baino dotore eta garbiagoa, morfologia zehatzekoa. Baina etxe eta gizarteko transmisioari behar den ardurarik hartu ezak ondorio lazgarriak erakarri dizkio hizkuntzaren egoerari gizartean. Jorera galgarri horri iraulia emango bazitzaion, jarrera eta pentsamodua bera berriro beharra zegoen, eta euskal hiztuna bera aintzakoago hartu, bere zertzelada eta berezitasunekin, eta haren hizkuneari estimazioa ematetik abiatu. Gaur egungo gazteria eskolatuan –nik neuk Unibertsitate inguruan giro hori abiatzen dut gutxienez– igarri-igarria da aldakuntza: dakienak, nork bere era egiten du ingurune ez formalean, eta niri neuri behintzat osasunaren seinale begitantzen zait jarrera hori.

Berandu baten baino ez bada ere, gure administrazioa ere hasia da –urte batzuetatik hona ezagunago da–, gure egoerak Québec-ekoaz baino Irlandakoaz antz handiagoa zeukala oharturik, arazo horri aurre egin nahirik. Azken aldion hasiak dira zenbait, *Auspoa*-ren erako bildumak ondare baliokotzat eza gutzen, artean, sakonari baino azalari gehiago zegozkien aurriritziengatik, begi aurrean ikusi baino belenatzara bota nahiago bazuten ere batzuk.

Arterago ere izan ziren ahozkoatasuna hizkuntza idatziaren aurrerapenerako zimendu eta lanabesik sendoena zeritzenak, baina gutxienak ziren, eta gizarte uholde nagusiaren kontrakarra ziharduten, noiz iraungiko dagoen sugartxoaren antzera. Gogoan sakonen dut, neu ere tartean izan nintzelako, Derioko Udako Euskal Ikastaroa eta hark urteen porasuz garatu duen metodologia apala bezain tinkoa, slogan batzuetan iraunkortu zena, «dakigunetik ez dakigunera, euskera bizitik hizkuntza idatzira». Giro horretan hartu zuen bere esangura betea ere, harako Mikel Zarate gure lankide zenak 1975ean, euskal narratiba laburraren antologian sartu beharrekotzat dudana «Idatz eta Mintz» alegi-ipuina zoragarrian aditzera eman nahi zigun mezuak:

Ezbardinak izan arren, ondo konpontzen ziran biak, bata besteari lagunduz. Bi izanik, bat zirudien. (...)

-Hasarre edo adiskide, soinkideok soinkide. (...) Idatz eta Mintz batean bi, luzaro ezin banan bizi. Hain zuzen ere alkarturik, beti alkarturik bizi izateko jaiolak dira. (1975, 23)

Baina ahozko hizkerari goi balioa ematea ez zen gauza berria, ez praxi mailan ez teoriarenean, tartean halako etena egon bada ere. Izan ere 36-39ko gerrateak urratu handiak eragin zituen alderdi guztietan, eta modu aparteko batez euskal hizkuntza-literaturen joan-etorrian, eta honi datxikala euskararen oralitatearen eremuan ere. Gudu aurreko aldian, besteak beste, Gasteizko Se-

minarioa izan zen horretan ere aurrelari. Han Manuel Lekuonak gidatzen zuen Ahozko Literatura Mintegiko kideen lanak *Anuario de Eusko-Folklore* aldizkarian argitaratu ohi ziren, eta han landutako metodologiaren emaitza izan zen *Literatura Oral Vasca* saio bikaina (1935), gerraosteko ilunaldian ere lehenaren eta geroaren zubi bihurtuko zena, batez ere 1964eko edizio ezagunari eskerrak (30). Adierazgarria begitandu zait, oraintsu hil berria den Julian Alustizak, bere azken liburuan, J. Intxaustik eginiko galderari erantzunez, beragan gerra aurre eta ostean eraginik handiena izan duten irakurgaiaren artean berau aipatzea besteen gainera (31):

...denen gainera Manuel Lekuonaren *Literatura oral vasca* delako liburua. Neure bizitza guztirako markatua utzi ninduen liburu honek.

Gure On Manuelek saio horretan isuritako argudioak frogatzeko era ona izan zuen Gabiriko Aztiria auzoko Etxetxo bere jaiotetxean bizi zen birramonarekin gerrate garaian izaten zituen solasaldi luzeetan. Eragin horren ondorio dira geroago aterako dituen liburu paregabe bi, euskara eta herri-jakintza jostera datozenak (32).

Ahozko hizkeraren aldeko apustu hori, XIX. mendearen hondarrean bizitu eta XX.aren lehen herenean indartu ziren joera purista eta, ez dakit esan, kultistari kontra jarki zitzaion joera izan zen.

Izan ere, lehenengo *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan sustraia hartu zuten gehiegizko joera larramendizale haiek, eta ondoren Sabino Aranek Bilbotik bultzatuko duen purismoa, taiu berrikoa, politika haize berrien arrimura, zein bere garaian eta inguruan, indartsu goratuko dira, eta ahozko tradizioaren ahaleginak ia estali edo lausopean gordeko. Bai Larramendizaleek, bai arantzarrek lexiko-berrikuntzan egingo dituzte ahalegin nagusiak. Azkuek morfologiaren alorrean ezarri nahiko ditu zenbait gramatika-eredu, tradiziokoak baino perfektuagoak direlakoan, eta Altubek sintaxiarenean. Ez ditut aipatuko aditz trinkoaren eta hitanoaren paradigmatikak artean inoiz baino urrunagora eramaten saiatu zirenen ahaleginak. Horrek guztiorrek ahozkotasanaren beheraldia erakarri zuen mende berri horretako berpizkundean, batez ere arantzarren eraginez; mende laurden bat lehenago Larramendiren hiztegi hirukoitza ezker-eskuin ustiatzen saiatu zirenean bezala. Purismo joerok izan dira, ezer baino gehiago, ahozkotasanaren balioa ahuldu dutenak; erabileran oinarrituriko ereduak barik, aurrez finkaturiko eredu perfektu bat bultzatu dutenak: morfologia, sintaxi eta batez ere lexiko arloan hizkuntza guztiz garbia nahi zutenak, birao eta araorik gabea. Eredu berabeteo begitandu baten taiura eginiko hizkuntza-eredua nahi zutenek nekez onar zezaketen ahozkotasanaren liberalismo

(30) Auñamendi argitaletxea, Donostia.

(31) Julian Alustiza «Aztiri» (2004): *Bizinahia*ren *arnasa*, Arantzazu, Oñati: 127-8.

(32) Lehenengo eta gure ustez ederrena, *Lihoaren penak eta nekeak* (Jakin, 1981) eta handik gerotxoago tematikaz zabalagoa den *Euskal baserriaren inguruan* (EFA, 1985).

tematia, lokarri estu gabeko koherentzia librea, arau-hesi guztiei salbuespen-zuloak eragiten zizkiena.

Baina purismo horren gehiegikeriez gogaituta, kontrako ahotsak zoli entzuten hasi ziren 30gn hamarkadan. Seberio Altubek idatzi zuen harako «La vida del euskera» saio gogoangarria; Justo Maria Mokoroa izan genuen aldi hartako gogoetalarari zorrotzetariko, bereziki *Genio y lengua* saioaren bidez, nahiz tamalez liburu honek, ordu txarrean inprimategitik atera eta argia ikusi zuelako –guduaren etorrera berehalakoaz–, merezi izan zuen osperik ez eragirik ezagutu ez bazuen ere, askoz beranduagora arte behintzat.

Baina berrikuntza-uholde guztiok gorabehera, ahozkotasanak berean dirau, bizirik eta tente euskal literaturaren historia guztian, mugiezineko zutabe sendo bat bezala. Gure euskal idazleak erdaraz jantzi izan dira jakintzaz, eta idatziz euskara egin orduan, ahozkoa izan dute funtsean eredu nagusi, hizkuntza baliabide nagusiei dagokienean behintzat.

Ahozko hizkeraren ardatz horrek euskal literatura idatziaren historian funts-funtsean dirau; are gehiago, euskal literaturaren beraren ezaugarri iraunkorra dela baieztatu daiteke.

Gure eliz giroko erretorika klasiko guztia ahozkoan zimendatua dago. Gure herri-poesia guztia, aspaldiko eresi zaharrak eta amodio-kantuak barne, berdin. Teatro zaharra, zertan esan ez da. Salbuespenak salbuespen, lekuan lekuko mintzoari guztiz lotua gertatu da tradizioko gure literatura. Ardoak lurrraren araberrako gustoa duen bezala, berdin gure idazleek sortu dituzten idazkiak.

Zenbait idazle klasikok, batez ere euskara gehiago ezagutu eta ikertzeko borondatea izan duten haiek, beren-beregi dioskue baserritarretan edo herriko jende zeheagan dagoela eredu ona. Gogora ditzadan Kardaberazek –nahiz bera jesuita ikastun eta arau zorrotzetako gizona izan, eta beraz esparru jakin batzuetatik irten barik dabilen idazle grabe eta ordenatu horietarikoa–, hala ere, hala eta guztiz ere, bere *EBO* saioan txertatzen dituen Donostiako plazanderearen eta Elorrioko ugazabanderearen edo etxagunitearen berbaldi erretorikoak.

Atzerago jota, zergatik hautatu ote zuen gure Axularrek garaiko lapurtera mintzatu modernoaren eredia, Leizarragaren klasiko idatzira jo ordez? Zergatik ez ote zuen izan Beraskoitzeko elizgizon-idazle kultista horrek, hain eredu zehatza finkatu ondoren, Alemanian Luther-ek eduki zuen arrakastarik eredu idatziari dagokionean? Ez dut uste katoliko-protestante auzi hutsagatik izan zitekeenik.

Eta hurbilagora etorrira, Mogel markinarrak Peru Landetako nekazaria bihurtuko du bere berba-jardunetako protagonista nagusi, ez bakarrik gizatasun, erlijio eta moral kontuetan; batez ere hizkuntzarenean esango nuke nik. Hizkuntzaren ikaste pedagogiarik onena, haren aburuz, ondoen dakitenengan-

dik ikastea dateke; tradizioko lanbideetan dihardutenak omen dira hizkuntzaren maisurik onenak, nahiz gero, hizkuntza hori gai goratueta erabiltzeko, beste soineko batzuen beharra dukeen gizon eskolatuak, berdin dio elizgizona izan, eskribaua izan edo irakaslea izan:

Gure guizon ta andra baserrietaoac chit ederqui, ta bear bada inorc ez becela, itzeguiten dute berai dagozquien gauza ascotan. Ordea ez luquee jaquingo nola zucendu itzac gauza goratu ta beren gañeticoetan. (JAMog CC, VII)

Gaztelaniaz mezu antzekoa damaigu: jende eskolatuak baino askoz hobeto mintzo direla herriko jendeak; haietara jo behar ei da hizkuntza ganoraz ikasteko:

Los pobres Predicadores se descabezan, y se ven a veces tan apurados, que aun a costa de mucho trabajo apenas pueden formar un Sermón lo más de él lleno de borrones, y barbarismos. Así nos quieren pintar nuestra lengua, como tan enmarañada, que no la entienden aun los naturales; pero qué naturales? Predicadores, y hombres de gran entendimiento, y gusto. Para acallar a estos enemigos de su Patria, sólo basta recordarlos, cómo hablan nuestros Guizones, con qué energía, naturalidad, y pureza, y havrán de confesar, que la culpa es de los ignorantes, y no de la lengua ignorada. (Prologo DC)

Agian Mogel dugu euskal idazleetan herri-hizkuntzaren aldeko apostu garbiena egiten duena jakinaren gainean, hizkuntzaren ikaskuntzarako metodologia bat garatuz. Bera dugu, aldi berean, herri-jakintzaren eta herri-bizieraren zertzelatze zehe bat egiten saiatzen dena.

XIX. mendean zehar ditugun zenbait idazle predikari ere herririk herri, batez ere garizuma aldian egiten zituzten misio-egotaldiez baliatuko dira, berriak erne ipinita herritar zeheengandik entzuten zituzten hainbatxo esamolde ikasi eta sarri paperera eramateko. Hala ondu zuen Añibarrok bere *Voces bascongadas diferenciales* hiztegia, lurralde diferenteetan zernolako hitz eta aldaerak erabili behar zituzten sermoilariei bidea errazteko asmo zuzenaz idatzia. Urrunago joango da gerotxoago bere ordena-lagun Juan Mateo Zabala bilbotarra, hitzak ez eze esamolde-lokuzio asko ere jasotzen zituela. Bide beretik ekingo dio beranduago Jose Antonio Uriarte arguiatarrak ere, berak bildutako uza Bonaparte printzearen esku jartzen zuela.

Elizgizon izan ez zirenen artean aparteko lekua ezagutu behar zaio Iztueta zaldibiarrari. Goierriko hizkeraren ezaugarriak ez ditu bertanbehera lagako Donostian bizi delarik ere, eta herri izaeraren funts diren folklorea eta kontaera zaharrak hautatuko ditu bere hizlaurko liburu nagusi bien ardatz.

XX. mendeari itxaron beharko zaio, ostera, herri hizkera eta jakintzen bilketa sistematikoak egiten hasteko. Aipa dezagun iraztean Azkueren ekarria: batez ere hiztegi hirueledun nagusiak (*DVEF*) hizkera biziari emango dion lehen tasuna da horren lekuko. Hiztegi hori orotarikoa izateko asmoz sortua eta ondua izan zen: idatzizko eta ahozko ekarriak, bitzuk maila berean jasoko ditu,

hitz-sarrerarako euskalki eta azpieuskalkietan hedatuen diren morfologia-aldaerak erabiliz. Azkuek ahalegin hori *Euskalerraren Yakintza* eta *Cancionero Popular Vasco* obra erraldoiekin osatuko du, beste txikiago askorekin batera. Askozaz beranduago –eta nekez eta laguntza gutxirekin argitaraturik (1976-1989)–, batez ere Lino Akesoloren ahaleginez burutu zen *Diccionario Retana* delakoaren 9 zenbaki mardulak (*DRAE*) Azkueren ahaleginori osatzera etorriko dira, funtsean bide beretik, idatzia eta ahozkoa biak iturri aitortuak eta aintzat hartuak direla.

Azken aldion, dialektologia mailan monografia ugari ezagutu dugu, lan-tzean herri edo eskualde batekoak, batzuek lexiko alderdia lantzen dutela, beste batzuk gramatika alderdia, edota biak.

Euskaltzaindiaren EHHA deritzan egitasmo erraldoia ere bere bidean da, ahozko ondareari gure belaunaldiak ematen dion balioaren lekuko, ia hamar-kada biko lanaren emaitza gertatuko dena.

Dialektologia eremuko lanok, itxuraz zientzia interes hutsekoak dirateke-ela uste izan arren, pentsa ezazue eragin zuzena izan dezaketela esparru literarioan ere, eta idatzizko emaitza zabalean orohar; eta aplikazio arteza irakas-kuntzan ere, urrunago joan barik. Ahozkotik idatzirako urratsok ondo emateko metodologia egokiak landu beharko dira, tokian tokiko aberastasunak ondoen komeni den didaktikaz eskolara eta euskara landura daitezten.

Ondorio modura, esan dezadan bada, joera kultista guztiak gorabehera, euskal literatura idatziaren erreferentzia ziurra beti izan dela herri-hizkera.

5.1. Herri hizkeratik testu idatzira

Herri-hizkera, ahozkotasuna, mintzaira, oralitatea eta halako hitzak darabiltzagunean testu idatzi mota batzuen bereizgarriak markatzeko, nahasbidean ere erraz eror gintezke, zeren testu-mota guztiz desberdinak sartzen ditugun izendapenon barruan. Ahozko hizkera aintzat hartzen duten testu motak ere nola bata bestetik guztiz bestelakoak diren, eta ahozkotasunaren neurria ere batzuetatik besteetara guztiz desberdina, azken hamarkadetako produkzioa begiean dela testu-mota hauek bereizi beharra dago.

Batetik, hor ditugu aspaldion ugariak bihurtu diren ahozkotik idatzirako transkripzio huts-huts direnak: «etnotesto» izenpean barrutzen ditugu sarri, esaunda, ipuin edo kontaerak direla, pasadizuak direla, ohitura, lanbide edo sineskeren gaineko azalpenak direla, izkirimiri edo barre eragingarriak direla..., askotarikoak berba baten esanda. Lekuan lekuko dialektologia-ikerketa guz-tien material osagarri bihurtu dira delako etnotestuok.

Testu-mota horiei duketen balioa ezertan kendu ez ukatu barik, bai ze-haztu nahi nuke, testuok bere horretan eskaintzeak, hau da, ahoz jalkitako le-

getxe transkribaturik alegia, hizkuntza idatzi formalari dakarkien hobekuntza edo aberaskuntza batzuetan predikatzen den baino mugatuagoa ohi dela. Ahozko testu horri, landu bako haitz edo harri-koskor baten taiua hartzen diot. Ahozko jatorriko horrek landua eta galbahetik iragazia behar du izan; barruan gorde ditzakeen baliapide eta bereizgarriak azalera ekarri eta euron balioak markatuak, direla lexikozkoak nahiz sintaxizkoak; ikastunaren gogoeta-ahalegin horren bidez eraikiriko zubiak erraztu eta laguntzen du gehienbat ahozko ekarri hori estilo idatzian mendatzen.

Badira gure literaturan zubi-lan hori ederto baten egiten jakin dutenak. Horienkoak dira, kasurako, «herri-idazle» dei genitzakeen horiek: ahozkoaren ezaguera eta beregantzte sakon batetik abian jarriarik, euren testuei ahozkoaren kolore eta zaporea kutsatzen ahalegin egin dutenak. Idazleok, itxuraz bestera badirudi ere, ikasiak ohi dira sarritan, gramatikaren ezaguera on baten jabe, baina morfosintaxi arauen ezagutza gorabehera, idatzizkoan hizkuntzaren eta hiztunen berezko senari eman izan diote lehentasuna, arauaren neurri estuaren gainetik. Idazle onen meritua eta interesa honetan datza, bestetik, hizkuntza ikuspegitik: ahozko baliapideak idatzian bideragarri bihurtu izana; ahozko erabilerak idatziaren bidez «on egitea», goragoko estatusa ematea.

Sartalde euskararen kasuan, eta XX. mendera mugaturik, hor sar nitzake Kirikiño eta Zamarripa, edo oraintsuagora etorrita, Juan San Martin eta Mikel Zarate. Edo gipuzkerarenean, hanean lehenagora jota, Marcelino Soroa, Antero Apaolaza, Pedro Migel Urruzuno, Salvatore Mitxelena eta aurkada bat idazle. Nafar-lapurtera eremuan, oraintsu bilduma hau mardul bat atera zaion Hi-



riart-Urruti kazetaria aipa nezake, gero etorriko den idazle-lerro ugariaren aintzindari gisa.

Kirikiñoren kasua benetan meritugarria da, zeren aranatarren giropean eta haien pentsabideak irentsirik egonagatik, ideien aldetik behintzat, egundo sekula ez baitzion herrikoitasunari atzea eman; hitz nabar batzuek gorabehera, herri-senak gidatu zuen haren lumaren etorri berez zeriona.

Gure literatura tradizioan badira idazleak, gramatikaren eta gramatikariaren esanera baino erabilera berezkoaren senari lotuago jardun dutenak; edo bestetara esanda, gramatikek finkatu arauetara jaramon estuegia egin barik, bestelako bideari ekin diotenak, tradizioaren ur-emoiak landu eta leundu duen estiloari menago iraun dutenak, belarriz zentzuten ahozkoari fidatzenago zirenak.

Esaterako, XX. mende hasieratik honantz Azkue, Altube eta jarraigokokak perpauseko hitzen ordena galdegaiaren aditz aurreko egotoki zirkinbako horren arabera finkatzen saiatu zirelarik, eskepe horretara bildu ziren Añuamendiz honunzko idazleak, malgutasun gehiagorik batzuk beste batzuk baino. Ekialdeko idazleek, alabaina, ordena malguagoak ziharduten, agian prosa aietuagoa eta freskoagoa zerabilzela, eta Ithurry edo Lafitte bezalako gramatikariek euren ere, idazleen eta testu idatzien ertzak ontzat hartuz eta euren lekukotza aldarrikatuz ondu zituzten euren gramatikak, alegiazko eredu teoriko ustez hoberenetik abiatuta barik. Esango nuke, horrek berorrek mesedetu duela ekialdeko tradizio idatziaren garapen osasuntsua.

Gogora datorkit harako «Basarri» bertsolari-kazetariarekin Mokoroaren arteko auzia, Krispin Beobideren *Asis-ko Loria* dela-ta, Aita Villasanteren sarrera batekin *Auspoa* bilduma ederrean argitara zelarik 1966an (33), Alfonso Irigoienek geroago gogorarazia (34). Baliteke asko, batez ere garai horretan eta Pirineoz honuntzean, San Frantziskoren bizitza euskaraz kontatzen digunaren prosak zurtz eginda uztea. Ez zetorren inondik ere bat gipuzkera klasikoren zutabe izan diren Kardaberaz eta Mendibururen estiloarekin, kasurako. Ez eta XIX-XX mendeetako erdi-sartaldeko idazle eskolatua gehien joerarekin ere. Inola ere ez Lizardi, Orixe eta ondoko gehienekin. Nahiz azpeitiarra izan jaiotzez, gure frantziskotarrak Donapaleun eginak zituen eliz ikasketak eta fraile-bizitzako urte batzuk, harik eta Tolosara itzuli zen arte. Gipuzkeraz idatzi bazuen ere, hemendiko gramatikari eta idazleen arauetaz ez zen gehiegi

(33) Edizioaren zehetasunak: Beobide'ko Aita Fr. Crispín (1966): *Asis'ko Loria*. Tolosa, Auspoa liburutegia, 57-58.

Larogehita bat urte lehenago (1885), Tolosan argitaratu zen liburu hau lehen aldiz, Francisco Mugerza=ren moldiztegiaren. Orduko izenburua: *Asis-co Loria edo Francisco Santu Aundiaren eta pobrien aita-lenaren bizitza*.

(34) «Basarri»k orduko *La Voz de España*-n zorrotz eta gordin astindu zuen K. Beobide *Asisko Loria*-n zerabilen ordena-modua («Mi atalaya montañera» atala, 1966-VIII-7), galdegaiaren legea betetzen ez zuelako, hartan ere. Alfonso Irigoienek bere «Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak» txostenean, Arrasateko jardunaldietara aurkeztu zuenean (1979-XII-20) argiratu zuen berriro auzi zaharra.

kutsatu; ahoz entzuna zuen edo ahozko jarioaren sundako estiloa finkatu zuen bere idatzietan, Ifarraldekoetan ere usu zen berbera, eta erdi-sartaldeko idazle zaharrik gehienetan ere bai, bestalde.

Adibide gisa, errepara diezaiogun ondoko pasarte honen ordenari:

San Franziskoren aurreneko semiak (...) erabaki zuten beretako bat Aita-lenari bialtzia, gauzak nola zijuazen guzia esatera. Lan artarako aukeratu zuten anai Esteban; au zan, Santuak lenbiziko aldiz Siriarako asmuan Italiatik irten zanian, bide-lagun artu zuana. Irten zan anai Esteban Aita-lenaren billa; bitartian bere lagunak eman ziran gogotik oraziora. (1966, 226)

Aditza predikatuaren aurrean dela, eta ez atzean, aspaldirik datorren ordena dugu, idatzirik zaharretan ere lekukokatua; L. Mitxelenak, euskal per-pausaren ordena dela-ta, komentatzen duen ondoko eresi-ahapaldian, kasurako: *Iausi da cerurean arria, / Aurquitu dau Lastur-en torre barria, / Edegui dio almeneari erdia.*

5.2. Herri literaturako genero batzuen baliagarritasuna aipatuko dut ondoren: herri-poesia, herri-kontagintza, herri-antzerkia eta gutun generoa. Berrez genero edo azpigenero batzuek beste batzuek baino emankorragoak gertatu ohi dira, herri-hizkeraren transmisore gisa.

5.2.1. Herri-poesiaren arlo zabal bezain ugari eta askotariko horretatik abiatuko naiz, lehenik agerian uzteko, beste genero batzuetan baino honetan dela ezagunago transmisio fidagarri baten hutsunea.

Euskal balada zaharrek ez dute izan ez gortetik, ez jaundegi eskuzabalik, ez inprimatzaile eukitsurik, errenazimendu garaian gure erromantzeok bildu eta plazaratuko zituenik. Gure herri-poesiak ez du Euskal Herrian ez Anberesen ezagutu goizetiko argitaraldirik.

Garibai bezalako eskribau banakoren batek eresi zaharren ondar batzuk jaso bazituen ere, edo luma anonimoren batek liburu zaharren baten barru-azalean itsatsiriko paperean amodio-kantu zaharren bat edo beste itsatsirik utzi bazigun ere, gure herri-poesiarik gehiena, narratiboa dela, lirikoa dela, ahorik aho heldu da guganaino, eta guztiz beranduan eroan da kodigo idatzira; ifarraldekoa lehentxoago, hegoaldekoa atzerago. Humboldt izan genuen esaterako, 1801eko Euskal Herrira ostera hartan *Andre Emili* balaren lehen bertsioa ahoz bildu ziguna.

Hala ta guztiz ere, ahoz jasoriko bertsiootan ere erraz topo egingo dugu, mendeetan iraun duten hizketa-formula, morfologia-egitura zein lexiko-formekin, gutxi-asko hizkera bizitik aldenduak direnak. Izan ere, hitzneurtuzko konposizioak –atsotitzen kasua ere beretsua da–, bere egiturak hala aginduta, sortu izan zeneko hizkera-estiloari eustera egiten du, hizlaurkoan erraz galtzen diren gauzetan ere: neurri-puntu-doinuen hesiak laguntzen dio soineko zaharri eusten. Ipuinetan nekez gertatzen da hori, egitura askatua ohi dutelako.

Hizkuntzari dagokionez, bada, interes apartekoa du herri-poesiak: hizkuntza egitura zaharren gordairu izatearena; hiztunen ezpainetatik aspaldi galduak diren forma zahar haiek ere hiztunetan nola-hala iraua izana zor zaio herri-poesiari. Gaztelaniaz zein beste edozein hizkuntzatan ere berdintsua dugu fenomeno hau.

Adibide gutxi batzuk ekarriko ditut, diodana on egiteko.

«Testamentuarena» deritzagun herri-balada zaharra, hainbat bariantetan sakabanatua izanagatik, hasiera honekin kantatu zuen Fruizko andre batek 82an:

*Iretargijek argi eitten deu / zeruan goijan bakarrik;
zazpi aingeru atzian ditu / zortzigarrena makalik*

Erdi Haroko oinaztarrekin ganboarren arteko guduka odoltsuen jazoera lazgarrietarikoa izan zen Mondragoeri su eman zieteneko hura, eresi zaharrak honako hasiera-ahapaldiaz hilezkortu duena:

*Argi izarrak urten dau / zeruan goian ostantzean;
Begararrok asi dira / traixioe baten asmatzean*

Eresi zaharrotako batek, XV. mendean Martin Bañez Artazubiagakoa hil zutenekoa gogoratuz, hasiera-formula ezagun hau darabil:

*Oñetako lurrau jabilt ikara, / Lau aragiok bere an berala, / Martin Bañez
Ibarretan il dala. (TAV zb. 3.1.9.).*

Antzera darabil Lazarragak ere amodio-poesia baten:

Ene aragiok ikara dabiltz, / ainbat sartu jate zure bildur (13v).

Idazle arabar honi oraintsuan ezagutu diogun eskuizkribuan, herri-koplagian guztiz ezagunak diren formula bat baino gehiago darabiltza amodiozko konposizioak ontzerako. Bata:

Gure ortuan madari, / gurazaurik amabi; / beste amore bilatuko nax, / amore bear banadi (1168 [17r])

Gure eske-kopletan, batez ere etxekoandreaki edo etxeko alabari zuzenduriko horietan, bada horren antzekorik, gaur ere herri-jende adinekoak ondo gogoan dituenak. Bat, berbarako, Markinako hau:

Eder ortuan madari / mende berriek ugari, / etxontako neskatilliek / merkatariek amabi.

Edo Gernikako beste hau:

Zure ortuan madari / adarrak ditu amabi, / etxe onetako alabatxuak / balori dirudi (35).

(35) Javier Kaltzakortak zuzendu dizkidan koplok, lehenengoa Inesi deritzan andreaki berak Markinan jasoa da, eta bigarrena «Belumendu» ezizenaz *Euzkadi* egunkarian Gernikako idazle batek argitaratua (1932-II-02).

Lazarragaren konposizio berean beste formula ezagun hau dugu, alde handi barik gure trikiti-kopla dantzakoetan entzun ohi den berbera:

Urtan eder arria, / aen gainean txoria; / amorantian lekidanari / atera neio begiak (1168 [17r])

Lexikora jota, gaur nekez da ezagutzen *zurubi* hitza sartalde honetan «eskilara» esateko. Halabaina *Alostorrea* baladaren lehen ahapaldiak gorde du hizori, oraindino 83an Markinan bildutako bertsio honetan:

Alostorria bai Alostorria / Alostorreko zuluhi luzia.

Testu idatzietan badira noizbait zenbait hitz, testuok berandu eta modu soltean idatzira trasladatu izanaren ondorioz, hiztegieta ere nekez ageri direnak, nahiz hitzok eurok berez zahar tankera guztizkoa izan. Horietakoa dugu *desborondate* hitza. Nire ikasle batek «Ana Juanita» balada ezagunaren bertsio bat jaso zion 81ean Bermeoko andre zahar bati. Ahapaldietariko batean *bere desborondatian* darabil, hau da, «gogoz kontra»:

*Ana Juanita ezkondutzen da / amaren d'aitan bozian; /
amaren d'aitan bozian eta / bere desborondatian.*

Sintaxi arloan ere bada bitxi ederrik herri-poesia zaharrean. Aipu dugun balada horretan, aurreratxoago, *batorrek / besteorrek* dio, guk gaur egun *bat / bestea* esango genukeen lekuan; *bat* eta *beste* zenbatzaileak mugatzaile singular hurbilaz, ergatiboan, gaur bitxi samarra gertatzen den kontua:

*Bateorrek agur, bestiorrek agur / alan despedidu giñian;
Eguna bi'zan seinaladua / Santa Luzia gabian.*

Bide beretik, erdi galdurik edo galdu antzean den esapidea dugu, «nora da, hara da» erabiltzea «nora joan da, hara joan da» adierazteko. Holakok ere herri-poesian badiraute. Aurreko balada berorren Arratiako bertsio baten ahapaldi batek hau dio:

*Lantza zorrotz bat neunkan eskuban / yaurti neuntzen bularrera.
Lantzeau bere ain zan zorrotza, / bazan odola lurrera.*

Morfologia arloan aipa nezake *-tik* kasuaren lekuan *-rean* ablatibo zaharrrak bizirik irautea. Jakina da atzizki hau, edo *-reanik* horren ondorengoa, lehenagoko mendeetan aldendu direla hiztunen artetik, hitz fijatu batzuek gorabehera. Baina herri-poesian ugariak dira berorren lekukotasunak, ostera. Balada berorren Arratiako bertsio batek honela dio:

*- Ana Juanita ezin ezkondu / ni bizi nazen artian, /
urre katia eta medella / neuk dodaz idunerian. (Ana Juanita, Arratia)*

5.2.2. Herri-antzerkia dugu beste eremu paregabe bat, herri-hizkera baliabide berezi askoren gordairu gertatzen dena. Nahiz aspaldikoa den Barrutiaren gabon-ikuskizuna, nahiz gaurko hiztunontzat urrun gelditu XVIII. mendearen lehen erdiko berbakera, testuan ageri diren forma zaharkituak

gorabehera, hizkera-egitura asko eta asko daude gaurko hiztun peto-peto askok ere halatsu erabiliko lituzketenak, eta herri-hizkera jatorrenaren errainutzat jo beharrekoak.

Eman dezadan kasurako *damu izan* aditz lokuzioaren erregimena:

Adanek egin eban itsurik bekatu, / Aren da gure kulpak *damu ditugu*

Gaur ere herri-taiuko egitura dotoretzat joko genuke: *damu dut lehenago ez esana*, edo *damu ditut hartutako erabakiak*; jakinik ere bestela esan daitekeela, *damutzen naiz honekin edo harekin*.

Eman dezagun *zer gura izan* lokuzioaren erabilera ondoko kantuan:

Liau lau bere, *birao gura ez*tala ene sabela

zeinda gaur esango bagenu bezala: *Ez naiz zuenera joan gura; neure etxean nago hobeto*.

Gaur entzuten diren antzeko harridura-egiturak idoroko ditugu berean. Gure parajeko euskaldun adineko batek baino gehiagok esango luke, bere buruari erruki harturik: *Ai gure koitadue!* Edota ume ernegarazle batek egonarrira eta patxada galarazten digunean: *Umionen deungie!* Joera bere-berekoak ditugu Barrutiarenean eta beste leku askotan:

Eztot nik merezitzen zeugaz gelditzea, / Zer egingo neuke, *ai ene tristea!* edo
Liau lau bere, liau lau bere, *gabaren alegerea!*

Xabier M^a Munibe, Peñafloidako Konteak ondu zuen *El borracho burlado* antzezlaneko euskal txatalek ere herri zehearen hizkera dakarkigute gogora.

Esamoldeen artean, gazt. «me las pagarás» adierazteko, *gogoango didak*. Edota solas barruan mendaturiko atsotitza: «Oh! y con cuanta razón / dijo aquel gran vizcayno: *Auntzak itxi baleio / Akerrak itxi leio.*» (EBB 6). Egitura bitzuk, Mogel ere jasorik dakartzanak. Ez baitute alferrik batak eta besteak markinar sorburua.

5.2.3. Gutun-generoa ere ez nuke bazter utzi nahi neure berba-ekarrian. Batez ere formaltasun gehiegizkoa jagon behar barik idatzi izan den gutunetako estiloaz ari naiz: senitarte edo lagunarte giroan eginikoez.

Bete-beteen ez lirarteke hemen sartuko, beharbada, Izurategik Jerusalemgo Osteran amari bialduriko *idazkijak*, zeren, amari bialduak izanagatik, asmo goratuagoaz eta estilo hanpatuagoz idatzi baitzuen, etxekoen artean erabili ohi den hizkune zeheaz barik.

Errenkura barik sartuko nituzke, ostera, Balentin Berrio-Otxoak amari euskaraz idatziriko gutun gogoangarri pozkarizkoak. Mezu-hartzaile bakarra edo ia bakarra dute gutunok, ama ia beti, aita ere bai batzuetan; eta estiloa ere gurasoentzakoa, etxekoagoa.



Bitxitasun bat besterik ez aipatzearren, gaurko euskaldunok ia ahaztua duguna, semeak gurasoari berorika egiteko usadioa: *illa bat oindiño ezta igaro, berorrek emondako plazua baino lenago akordau naiz* (36).

Ohartu, jatorduak direla-ta, egiten digun jateko-deskripzioari, darabiltzan izenak –maileguzko eta sustrai zaharrekoak–, etnografia aldeko balioaz aparte:

goizian artzen dogu txokolatetxua fotarekin eta baso bete ur azukerresauarekin; eguardiyan, sopia, azia, garbanzua, urdaiya okela tajada onakin, eta postrian, matsa. Arratsian afaitan oliyo azia, baña ez erozeinbe modutakua, beste fratel andi bat bete solomo edo okela, edo beste alako tajada onak daukazen gauzen bat, eta postrian matsa. (ibid. 34)

5.2.4. Ez gara gehiago luzatuko herri-literaturako beste generoekin. Errefrauen eta esaeren harrobian Azkue, A. Zabala, G. Garate eta beste batzuek eginiko bilduma nagusiez ostean, ugariak dira han-hor-hemengo bilduma laburrak, sarritan lurralde-eremu txiki bati atxikiak. Aspaldion holakoak asko ugariatu dira, eta ez gutxitan hurreko administrazioek lagundurik edota irakaskuntza-eskakizunek zirikatuturik.

Holako bilketak gordin-gordinean egin dira gehienetan, elaborazio gutxiarekin, eta horrek mugatzen du sarri, luma trebe baten faltan zubi egiteko, es-tilo idatzian txertatzea, edota ikaskuntza-planetan baliagarri bihurtzea (37).

(36) Valentin Berrio-otxoa (1988): *Euskerazko gutunak*. Bilbao, Labayru Ikastegia & Bizkaiko Aurrezki Kutxa. Kultur ekintza, 34.or.

(37) Urrunago joan barik, Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Busturialde, Uribe-kosta eta beste eremu askotan egin dira bilketa mugatuak.

Ahotik harako kontagintzari ere ez diogu eragingo, zeri eragin asko dauka baina. Aparteko esangura dute genero honetan gure literatura tradizio apal horretako idazleren batzuk, ahozkotasanari etekin ederrik ateratzen jakin dutenak. Asko horien artean Urruzunoren bidez erakutsi nahi nuke ekarri honen garrantzia. *Euskalerritik zerura* izenburupean jaso zuen A. Zabalak *Auspoa* bilduman (5, 1961) Elgoibarko apaiz honen kontaera-sorta bat (38). Luma finaren jabe izanik ere, behin ere ez da urruntzen bere kontaera hiztun on baten tankeratik, nahiz idazlearen iragazkiak konta-jarioari beti eman ohi dion goragoko dotoretasuna. Herri-senak gidatzen du bere hizkera –agian hiztegi garbitxoago jokatuko badu ere–, gramatikariaren hesietarik urrun. Horra herri-kontaeran zimendua hartu duen herri-idazle on baten eredu.

5.3. Herri-hizkeraren interesa hizkuntzaren barne-garapenaren aldetik

5.3.1. *Lexiko eta lokuzio eremua*

Begi bistakoa da hiztegi-biltzearen aldetik herri-hizkerak duen harrobi ondargabea. Euskararen kasuan datu frogatua da, idatziz sekula lekukotu ez diren hitz asko eta asko bizi direla, edo bizi izan direla, hiztunetan, eta hitz-aldaereta jo ezker, askoz gehiago.

Beste hizkuntzetan baino askoz gehiago, gure hiztegi-gileek hiztunengana jo dute hitzen bila; berdin esamoldeen kasuan ere. Horrek ez gaitu miretsi behar, literatura mugatua eta generoz are mugatuagoa duen hizkuntza baten kasuan. Hala jardun zuten –sartaldeko eremutik irten gabe–, ez Landucciok bakarrik –orduan nekez aurki zezakeen testu idatzirik–, ezpada Arakistainek, Añibarrok, Moglek, Iztuetak, Zabalak, Uriartek eta beste askok, aurretik eta atzetik. Hiztunak izan dira, gure lexiko tradizioan, hitz-biltze harrobi ia bakarra.

Jakina da, ostera, lexikografia-zientziak aurrera egin ahala, eta hiztegi integralak egiten hasi diren momentutik, idatzira gehiago jo izan dela. Hala egin dute, ahozkoa baztertu gabe, Harrietek, Azkuek, Lhandek, S. Mujikak... eta askoz gehiago ondoren etorri direnek.

Baina ahozko hitzen biltze-lanori ez da eten; are gehiago, bizitu egin da, neurri handi baten dialektologia ikerketek hartu duten abiaduragatik, baina baita ere ahozko tradizioako jario hori betiko gal ez zedin beldurrez.

Eredu bikaina eskaini ziguten, orain aspalditxo, T. Etxebarriak Eibarko lexikoa eta K. Izagirrek, Oinati aldeko hizkera modu sistematikoz jaso zute-

(38) Oraindino oraintsu atera digu bilduma berean Urruzunoren beste bilduma bat, oraingoz bertsoz eta hizlaurko lanekin. (...)

nean (39). Gerora asko ugaritu dira, eta interesik gehien dutenak, sarrera-hitzen osagarritzat kontestu-adibide egokiak jaso dituzten haiek dira.

Ahalegin honetan ezinbestean aipatu beharra dut Labayru Hiztegia (2003) (40) eta bera eraikitzeke sortu zen datu-basea, zeren sarritan hitz jakin baten gaineko informazio osoa ez du jasotzen hiztegiak berak, baina bai azpian datzan biltegiak. Asko eta asko dira horra bildu diren hitzak, batez ere bizkaiera eremukoak, edota agertzen ez zirenak aurreragoko hiztegiatan, edota haietan jaso gabeko adiera batekin, eta batez ere hiztunen erabileratik zuzen jasoriko adibide fidagarriekin. Gure hiztegi honek eta beste batzuek egiten ari diren ahalegin hori funtsezkoa da material hori literatura-gai bihur dadin. Izan ere, hitz hutsa ez da berez ezer, fonema pilaketa bat besterik; hitz horren erabilgunea eta horren gaineko informazioa da benetan balio duena, idatzirako baliagarri izan dadin. Jasoriko hitz horren adierak zehatz finkatu direnean, kontestu-adibide egokiekin osatu denean, sintaxi-erabilerak argi geratu direnean, orduan da hitz hori literaturara esportagarri. Ahalegin hori egin duten hiztegiak dira luza-rora hizkuntza landuaren aurrerabidean eragina izan dezaketanak.

Tokian tokiko hizkeren hitz, lokuzio eta esamoldeen bilketa ugariak egin dira aspaldion euskararen eremu askotan, eta horrek korpus multzo ugariak utzi dizkigu eskuraerraz, hainbat sarean esekirik ere direla. Bilketa batzuk metodologia aldetik ondo taiutuak, baina beste asko nahas-mahas, denerik bata bestearen ondorik, eta ahozkoaren transkripzio soila ematen dela. Ezin ukatu horrek, orain hamarkada batzuk eskuraerraz ez zegoen materiale mordoia ipini digula aurre-aurrean, zernahitarako balio duena: lexiko zein gramatika ikerketak egiteko, edota literaturgintzan birrerabiltzeko. Hala ere, argiro dazagut, ugaritasun horrek beste barik ez duela bermatzen gure hizkuntza-kalitatea. Irakasleen, ikas-material egileen eta idazle trebatuen ahalegina behar da bitartean, harrobi horri onura ateratzeko. Batez ere idazlearen ahalegina, eta haren intenzio-ahaleginei esker izan dezake hitz edo esamolde batek arrakasta idatzian, hari esker bihur daiteke «literario» halako edo holako hitz edo esapidea.

Hurragora etorrira, Deustun irakasle-lagun dudan J.M. Etxebarria izenda nezake, gehienoi hain bazterreko egiten zaigun baina hitz zahar berezietan hain aberats den Zeberio aldeko bitxitasunak idatzira ekartzen egiten duen ahaleginagatik.

5.3.2. *Sintaxi alderdiko interesgune batzuk*

Gorago aipatu puntuez gainera, sintaxiaz dihardugula, baditu herri-hizkerak zenbait erabilera, edo azterka ekin ezkerro beharbada hainbat, ia bere-be-

(39) Izaguirre, Cándido (1969), *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*. Villasante, Luis (arg.), ASJU-ren Gehigarriak 7, Donostia. Berrarg. Donostia, 1994.

(40) Hau osatzera etorri da gatzelania-euskara hiztegia, *Diccionario Labayru* delakoa, 2005. urteko abenduan.

reak dituenak, hau da, estilo idatziak gutxitan edo nekez beregandu izan dituenak, arrazoi diferenteak direla medio.

Ene ustea da –beste askorena ere hala dela-ta nago– hiztunetan indarrean diren sintaxi-moduak, maiz ahozkozkotasunari egozten zaizkion laxotasun edo arau nasaiegiak gorabehera, aberasgarri gerta daitezkeela estilo idatzirako. Ez dut honekin esan nahi, ahozko egitura guzti-guztiak idatzira eroatekoak direnik; idatziak beti baititu –eta hala behar du ere izan– ahozkoak baino lege finkoagoak, estuagoak. Zehaztu nahi dudana da, ahozkoaren lizentzia batzuk edota aukera batzuk guztiz erara datozkiola idatziari, estilo argi eta malguagoa edota diferenteagoa, alternatiba modura jadetsi orduan.

Sintaxi eremuan ere, ahozkoa idatzia baino bizkorrago ohi doa aurrera, eta hiztunen ezpainetan bide luzea egin eta gero sartzen dira apal-apalik egitura asko idatziaren ataritik. Agian euskararen kasuan, gure literatura bere osotan begietsita, arin eta errazago sartu dira beste hizkuntza kultistago batzuetan baino (41).

Gure hizkuntzaren morfosintaxi-marka nagusi batzuei denboraren joan-etorrian ohartu baino ez dago, ahozkotasanaren idatziarekiko eragin etengabe horren oinatzak susmatzeko.

Auñamendiz beheko eremurik gehienez ura legea zabaldu den aditz perifrasi jakinak, *joan egin da*, *galdu egin dira* erakoak, ia ez ziren azaltzen XIX. mende hasierako testuetan, eta mende horretan aldirik gehienez ere ez asko; eta bizkaieratik kanpora are gutxiago. Hura ta guzti ere ahozkoaren indarrak bere legea gailurtu du. Lehen ez zen zerbait garatu du hizkerak; beharrak eraginda, dudatzeke. Aditz bidezko ekintza-adierazte bat *egin* txertatuz adierazten da gure artean gaur egun, lehen ezer erabiltzen ez zen lekuan. Euskararen ekialdean, aldiz, ez du horren premiarik sentitu hizkerak.

Beste batzuetan –gehienetan esango nuke– erraztera jotzen du ahozkoak. Idatziak dituen zenbait berezitasun edo bide berezi erraztu edo bakartu egin ohi ditu maiz. Jakina da gure idatzi zaharretan, nahinongoak direla ere, izenak mugatzaile hurbilaz markatzeko joera handiagoa zegoela, aldi batetik honuzkoetan baino.

Hala gertatu da ekialdetik sartalderuntz datorren neutralizazio-prozesu bat, zeinen bidez hurbilaren lekua mugatzaile generikoak beregandu baitu. Eta euskararen sartalde honetan ere, idatziz behintzat, idatzi zaharretan baino askoz mehatzago darabilgu markatzaile hurbila, nahiz sarritan ahozko joera horretan bat ez etorri.

(41) Esana dugu jadanik, euskal literatura klasikorik gehienak, duen izaeragatik, hiztun arruntei zuzendua edo gehienetan hauek belarriz entzuteko idatzia dela gogoan dugula, hiztunen erabilerari makurtu samar jokatu du, aldian aldian eta lekuan lekuan, eta ez die, gehiegi behintzat, aurreko idazleen parametroei jarraitu.

Axularrek oraindik XVII. mendean honetara idazten zuen:

Gure lehenbiziko aitaren bekhatua dela kausa, harengatik, haren kariaz, *guztiok* gaude preso, *guztiok* gaude mundu hunetako garzele hunetan, heriotzera kondenatuak (Ax zb 36)

Guztiok nahi dugu salbatu, guztiok nahi dugu ioan parabisura, eta guztiok dugu esperantza. (Ax zb. 167)

Amendux-en eresian:

Ene anima duzuen gomendatu, garitates mobiturik
Zarraizkidate g[...] bertan *itzok* ongi notaturik.

Sartaldean bertan ere mugatzaile hurbilik ez darabilgu XVI. mendean generabilen ginoan gutxienez, nahiz ahozkoan idatziz baino askoz testuinguru gehiagotan bizirik dirauen:

Pobreontzat, oi, gaxik asko, / *aberatsonek* doblea. / Mutil-neskatoz lenaengoa / bete bear dau etsea (Lazarraga 1196, 42r2)

Ditxabageau joan ninzan / ezer бага eskuetan, / *etsaiorrez* / topa nindin gradaetan (ibid. 1197, 43r1)

Ez da agian zaharregia izango, *alperrik* adberbioaz baliatzea hizkuntza, perpaus buruan ipinita, zentzu kontzesibo markatuzko egiturak eraikitzeko. Ahozkoan eta sartalde honetan garatu den egitura dirudi; lehenagoko idazleek, agian ezaguna bazuten ere, bakan erabili zuten horretarako, eta beharbada euskal gramatikaren azterrenik ere ez zuen baina etxeko hizkera aberatsaren jabe zen Balentin Berriotxoak darabil behin eta berriro amari eginiko gutunetan, hizlaur zein erdi bertsotan:

Alperrik lurrian nekez jan artua, / bizitza pobria zerurako da atajua, / ez larregi desiatu dirua. // *Alperrik* izan urria ederra, / galtzen bada gure anima baka-rra, / ezta faltako begiyan negarra, / ez lepuan sua eta garra. (1988, 61)

Irrika biziz nahi dugun zerbaiten guraria adierazteko, *oxala* maileguzkoaren lekuan, aspalditik datorrena da, hizlaur zein neurtitzez ageri den *arren* aurre-hitza, gaur tamalez balio horretan lausotua. Aboitz lekeitiar bertsogile zaharrak honetara zioen bere bertsotarikoa baten:

sekula asmo obarik / zeuk ez dozu artu; / *arren* askoz lenago / otu *balitxatzu!* (J.A. Aboitz)

Edo gure Zabalak herritarrei entzuniko legez jasorik dakarren hizlaurko esaldi honetan egitura bera (42):

(42) Edo beste hau: «Bideetan, caleetan, ta plaza agui-ri-guiñoetan entzuten dira berdezkeriac, icen charrac, bastokeriac, ta zantarkeria eskergaac; icusten dira ukiera [ucutza] deungaac, oracadaac, bultzada gaistoac, ta triscoac; ta *arren bada* Elesha santuac eurac alangoric *ezpale-tzue ta ezpalecuse*» (JMZab Irun 142), «Eta ceuen artean icusten da alango gauzaric? Ay! *Arren bada ezpaliz icusico*; baya lar bere lar icusten da.» (JMZab Arantz 256).

Geienetan gatxen bat egin deutsuenean, azaren batzuk kendu badeutsuez, esan oi dozue: *arren bada* beso biak igartu dakiozala (J.M. Zabala)

Ojala jaio ezpagaña ori ikustekoan! *Arren bada* ilko bagiña egun gorri ori ikusi baño lenago (JMZab Arantz 278)

Herri-hizkeraren lekukotasunak, zaharrak eta ez hain zaharrak, hor dautzanak, batzuek hiztunen oroimenean, besteok idatzietan barrena.

6. ONDORIO GISA

Esandako guzti honetatik, ondorio ugari eta diferenteak atera ahal balitez ere, batzu-batzueta finkatu nahi nuke oharmena. Ondorio baino gehiago, geure hizkuntzari diogun atxikimenduak eraginiko sentierak dira, aholku gisa hemen garandu nahi ditudanak, gaur egungo eta geroko gure hizkuntza idatziaz zimendu trinkoago baterako balia dakizkigun.

6.1. Egin ditugun oharpen eta hor ezarri adibideetarik argiro dakusaguna da, iragana, gure literatura iragana uste baino hurragokoa dugula gaurko hiztun euskaldunok, eskola eta azala alderatu ezker.

Idatziz, aspaldiko testueta ageri diren hainbat hitz, esapide, sintaxi-egitura eta bestelako baliabide askoren oihartzuna gaurko hiztunetan ere erraz aurki dezakegula, leku batean edo bestean, batez ere hiztun zahar, bizimodua euskaraz egin dutenetan.

Eta itzulitara begiratuta beste hainbeste: herri-hizkeraren baten beste inon ez lako harribitxi bat aurkitu uste dugunean, idatzi zaharren baten ere bila dai-tekeela berorren azterrena.

Beste hitzez esanda, tradizioa eta modernitatea, uste baino gehiagotan daudela zubiturik, eta zubi hori sendotzen egin behar dugula indar, baldin geroko hizkuntza oparoa eta mardula izango bada.

6.2. Bigarren oharmena. Idazle saiatu eta ahalegintsuen ekimenari esker egin du orain artean aurrera batez ere gure hizkuntza landuak, edo esan dezadan, hizkera idatziak. Ahalegin barik edo berez legez, ezer berririk gehitzeko kezka barik idatzi denean baino gehiago goratu da hizkuntza, idaztea jardue-ra neketsu eta ahalegintsu gisa ikusi duten idazleei esker.

Lehenagoko mendeetan halaxe egin izan dute, batzuk beste batzuek baino gehiago, Axular, Oihenart, Larramendi –gehiago ez ahal zuen idatzi behar euskaraz–, Mogel, Iztueta edo Zabala batek. Edo oraintsuagoan berdin Orixe, Lizardi, Mitxelena edo Erkiaga batek. Eta gaur beste hainbatek.

Tradizio idatzi zaharrak eta berdin herri-literaturak edo herri-hizkerak barrenean badituzte hizkuntza-baliabideak ugari, irakurtze-ikaste-hautatze jardun

egingurako batez dautzan lozorro hortatik jaregin eta gaur egungo testu-sorkuntzara ekarri behar liratekeenak; nork ahal duen ginoan, nork bere sentiberatasunari men eginda, baina beti ere, automatismoak bazter utzita, nekea hartuz.

Sortzaile diren idazleek dutela esango nuke horretan erantzukizun nagusia, ez bakarra baina. Testuak arin eta presaz idaztera beharturik daudenei ezin dakiete hainbeste eskatu, baina hala ere, gaur egungo hizkuntza-corpusek eskaintzen dizkiguten erraztasunak bide direla, kazetari, itzultzaile, gidoigile eta bestetariko idazleek ere pila lezakete euren garautxoa.

Esan gabe doa, gure irakaskuntza-sistemaren erantzule diren profesionalak ere, hala irakasle, nola material didaktikoen prestatzaile, aparteko erantzukizuna dutela umeak mintzo diren inguruko erregistroak ezagutu eta irakasteko.

Euskarazko testuak kalitatez goratzeko eta baliabidez ugaritzeko har de-din neke horrek fruituak ere hobeak ekarriko dizkigu luzarora, eta hori izango da ondoko belaunaldiei oinordekotzat utziko dieguna.

Jaun-andre neureak. Esan dot.

ZAHARRAK BERRI, EUSKARAREN BIZIGARRI

Andres Urrutia Badiola

Eguerdi on guztioi!

1. ALDEZ AURRETIKOAK

Bizitzan ez da sarri gertatzen egun zuen aurrean ikusten duzuen, alegia, behinola maisu eta ikasle izanak, gero adiskide eta lankide izatea. Hogeita hiru urte geroago, halakoxea da Adolfo Arejita eta nire artekoa. Menturaz, ez berak, ezta nik neuk ere, ez genuen uste halako atakan ikusi beharko genuela gure burua, bera hizlari eta ni erantzule, bere sarrera-hitzaldian, non eta Euskaltzaindian, eta, gainera, Bilboko udaletxeko areto eder honetan.

Izan ere, 1982. urtean izan nintzen Adolforen ikasle, Labayruren Udako Ikastaroan. Gaia, *Euskal testu zaharrak*; testu-liburua, Koldo Mitxelenaen *Textos Arcaicos Vascos* aurkiezina, Minotauoren argitalpenean; lekua, Derioko eliz mintegia; eta jagole, hobe ez, Ander Manterola. Albo-albotik, bera ere irakasle, Karmelo Etxenagusia, Iparraldeko idazleen isilpekoak agerian jartzen zizkiguna, gure harridura eta gozamenerako. Lantzean behin, Xarritton ohar-tua ere, gure irakasle, idatziz ez ezik, mintzoz ere mugaz haraindiko euskara gozoaren doinuak ezagutu ahal genitzan.

Bandera eta goiburu genuen Mikel Zarate zenaren asmoa eta gogoia, Ander Manterolak biziberritua eta ondua. Jakina denez, *Dakigunetik ez dakigunera* gindoazen, gogotsu eta asmotsu, gure burua euskaldun egiteko konbentzimendu osoarekin. Belaunaldi bateko kide ginen, eta, bistan da, ikasle izan ginenok, gerora ere, alegia deus ez, irakasle izateko tenorean ikusi genuen gure burua. Horrek eman zidan parada ezin hobea bertara urtero-urtero hurreratzen ziren hainbat lagun ezagutzeko, egun euskalgintzaren barruan egile esanguratsuak direnak. Inoizkorik beteenean ari ginen hantxe, udako uztailaren sargorian, euskara batuaren nondik norakoak aztertzen, nor bere herriko euskal xehetasunak garatzen eta barruratzen... betiere, elkarrekiko harremanetan, kantu, bertso eta antzerkirako abaguneak bilatzen.

Arkadia pozgarri artan, alabaina, baziren une larriak eta estuak, batik bat, azterketa-ordua iristen zenean, bigarren astearen hondarrean. Gero, azken egu-

nean, berriro ere, umoretsu eta alaitsu, norbaitek txistua ikasgaien zorrotik atera, eta hara non, ostera ere, musika eta dantzaren alaia, *datorren urte arte* amultsua elkarri esanez, bazkalondo adiskidetsuan.

Horraino testuingurua. Testua, aldiz, bestelakoa zen, Adolfo Arejitak beti-beti zehatz eta ardura handiko irakasle moduan agertu zuelako bere burua. Bera susperle, aukera izan nuen, *Idatz&Mintz* aldizkarian nire lehen testuak argitaratzeko. Ondo gogoan dut haren erantzuna, nik bidalitako materialari buruz: «... Andres Urrutia, harako abokatu euskaltzalea...». Esan gabe doa harrezkero ere maiz izan garela hizlarikide, ikerkide, bazkide, bultzakide... eta, ororen gainetik, irizkide eta adiskide. Ez beza inork pentsa horretan joera makurrik eta soberaren zantzurik. Ikus beza edonork euskalgintzarako lerrakera bertsua, eta euskara eta euskal kulturari dagokion egoeraren diagnostiko parekatsua.

Bagenituen horretarako osagai erkideak. Biok bilbotar izan, eta bi-biontza erakargarri eta erakusgarri zen halako aldarte eta iritzi zabala, Bilbon suertatu diren kultura-aldaketen erakusle. Amak maistrak genituen; herri txikieta-ko familia eta mintzaira euskalduna ere esku betean, gure gurasoak gerra osteko bilbotar etorri berriak baitziren. Gu geu, aldiz, bilbotar ginen jaiotzez, eta bagenekizkien gure hiriak zituen aspaldiko tradizioak, euskalduna zein gaztelaniaduna. Azkue zein Unamuno geure-geureak genituen, G. Aresti eta M. Zarate geureganatzen genituen bezalaxe. Funtsean nabarmen zitzaigun, Francoren Bilbo itogarri hartan, kulturaren premia eta beharra.

Ez gara gu Bilboko giro horretan hazitako bakarrak, gurekin batera baita, Euskaltzaindian bertan, Xabier Kintana adiskidea, euskara gogoz bereganatu zuena, bere bilbotartasunaren seinale zalantzagabekoa. Horra hor hiru euskaltzain oso bilbotar, eta horra hor, adiskidetasunean, Kristo, Indautxu eta Zabalbideko kalekumeak, Bilboko udaletxean baturik, euskaraz eta arabiar areto ederrean. Baten batek esan bezala: *Berrogei urte eta gero hau!*

2. ADOLFO AREJITAREN NONDIK NORAKOAK

Derioko eliz mintegian ikasi ondoren, Deustuko Unibertsitatean atera zuten lizentzia, Filologia Erromanikoan. Harik aurrera, Adolfo Arejitak bere lehen urratsak orduko euskal komunikabide urrietan eman zituen. Urte luzeetan Adolfo Arejitaren ahotsa izan zen Bizkaiko Herri Irratiaren bozgorailu egokia, hamaikatxo elkarrizketa, programa eta ospakizunetan euskararen oihartzuna aldarrikatzen zuena, eta, areago, euskararen lekukotza bizia zekarrena, euskaldunen aho-mihietan.

Bazen horretan ezkutuan eta baztertuta zebilen tradizioa. Bazen, zernahi gisaz, tradizio hori berriztatu beharra. Hartara jarri zen gazte-andana, Adolfo bera tartean, arestian aipatu legez, Deustuko Unibertsitatearen ikasgeletan Filologia Erromanikoaren azpian euskarari ere berea eman nahian. Jakitun zineten garai hobeak etorriko zirela, eta, horren esperantzan, bakoitzak bere aldetik, osteran-

tzeko ekimenetan lotu zenituzten zuon indarrak. Hitz batez esateko, horretara lanzaletu zineten, euskalgintza bete-betean. Deustuko Hizkuntza Eskola Ofizialaren ahaleginak ere, aparte ez, egun hemen zaudeten askoren biografian.

Aldi berean, Labayru Ikastegiko ikastaroak. Harrezkerokoagoa, Deustuko Unibertsitateko eskolak eta doktorego-tesia, Labayru Ikastegiaren euskarar-arloaren ardurarekin batera. Euskararen inguruan morfojosquera eta lexikografia ikertu, aztertu, irakatsi eta horretarako lantaldeak kudeatu ere bai, ikuspegi hori sarri-sarri uzten baitugu bazter euskalgintzan. Ezin alboratzekoak berak moldatu dituen euskal idazle askoren lanak atontzea eta argitaratzea. Hori dugu ezinbestekoa, ikerketa sendo baterako noraezeko eta nahitaezkoa dena.

Ez dira atzo goizekoak Adolfo Arejitaren eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak. Euskal Gramatika Batzordekide izanari gehitu behar zaizkio ha-maikatxo neke eta buru-hauste, egile berrien literatura-lanak epaitzeko, ma-haikidetzaz gozo bezain astunetan.

Norbaitek galdetuko balit zein izan den eta zein den egundaino ere zure ekimenaren ardatza, zalantza-ñimiñorik gabe erantzungo nioke zuk zerorrek gure aurrean erabili dituzun hitzekin: *Gure tradizioari ze etekin atera*. Horra hor, nire ustez, zure ahaleginen eta egitekoen giltza eta gakoa.

Dena delako hori ez da, horratio, zeregin laburra, aspalditik baitabil gure artean arrangura zaratatsua, mundu berriaren teknologia gero eta zabalago zai-gun neurrian. Gibelamendu eta atzerakuntzaren mamuak ikusten ditugu, beste behin ere, gure artean, euskarak aukera historiko honetan aurrerabide egokia egin dezan. Bada, hor bazterretan, euskara bera lantzeko asmoa agertzen due-nik ere, inolako aurrerakinik ez balego bezalaxe. *Utikan!* esango du horrek behin, birritan, hiru aldiz ere, aurreko guztiak kareletik bota arte. Zurea, berriz, beste haritik dator, argi ikusten baituzu, zehatz erakutsi duzunez, teknika berriak euskararen zerbitzuko jarri behar direla, teknika hutsa arimarik gabeko jostailu hutsala baita, eduki sendorik eta ondo galbaheturik ez badauka.

Hara, Adolfo, zuri entzuten nengoen bitartean, etekinak ateratzeko gintza horretan murgildu dut nik ere nire burua, zuri entzun ahala, burura etorri bai-tzait bestelako kontu bat, hots, euskararen ahozkotasan klasikoak baliatu beha-rra. Bada hor erretorika jori eta paregabea, hitzetik hortzera eramaten gaituena premiazko dugun horretara. Egin-eginean ere, ez gara oraindik gauza izan erre-torika zaharra, sermoiena, hain zuzen ere, gureratu eta gure irakasleei erakus-teko, lagungarri ez ezik, baliagarri eta gozagarri izan dakien ikasgelan zein osa-gai didaktikoetan. Berba batez, egiteko dugu Mendebaldeko Europaren herri gehienek egin dutena, gure euskararen hitz-jario erlijiosoa laikotu eta zabaldu, jendaurrean euskaraz hitz egiteko ardura dutenen artean behinik behin.

Bestera esateko, katalan hizkuntzaren eremuan inoiz plazaratu dena:

Seria molt important, per als doctorands, que hi hagués unes proves, una revàlida que permetés valorar la capacitat d'eloqüència i la capacitat de verba-

lització d'un professor. Als països protestants han tingut 'enorme sort que, per tradició secular, els professors unibersitaris han copiat els models de la prèdica. A Amèrica i a Anglaterra els professors són habitualment excel·lents pel que fa a aquesta qüestió de la capacitat de comunicació. Són d'una eloqüència extraordinària. L'exegesi bíblica i el sermó, en aquests països tenen una gran importància. La importància d'aquesta tradició es troba no solament en l'àmbit universitari, sinó també en el polític, en el parlamentari..., cosa que aquí no tenim. Al que vol ser professor universitari, l'hauríem d'ensenyar a «discursar». S'ha de saber engrescar els estudiants (1).

3. BILBOTARREN TRADIZIOA: AITA JUAN MATEO ZABALA GOGOAN

Horretarako, bistan da, behar-beharrezkoa da hainbat baliabide lexiko, sintaktiko eta gramatikal ekartzea. Zuk zerorrek batzuk aipatu dituzu. Nik neonek beste batzuk gogoratuko ditut, testu idatzizko zein ahozkoetan zokondoan utzi ezinak direnak. Horretarako erabiliko dut harako idazle bilbotarra, Aita Juan Mateo Zabala (1777-1840), berarengan biltzen baitira, bi mende lehenago, zugar aukeratu ditugun ezaugarriak eta zertzeladak.

Hura ere bilbotarra zen, gurasoak bizkaitarrak baziren ere. Hura ere, zu eta hainbat bilbotar bezalaxe, familia elebidunekoa, euskararen eta gaztelaniaren jabe ziren horietakoa. Harengan ere, zure kezka bera, euskara noranahi eta nonahi zabaltzeko eta barreiatzeko, ikerketa eta azterketaren bidez. Harentzat ere, zure moduan, euskara mintzagai ederra, pulpiturik pulpitu, euskal herritarrei sermoien bidez fede katolikoaren mezua adierazteko.

Aldi nahasian bizi behar izan zuen hark, eta Bilbotik gazterik joan arren, fraide gaia Bilboko euskararen lekukoa dugu (2). Haren eskutik ezagutu ziren euskal letretan alegiak eta fabulak, lan bibliografikoak, eta, batez ere, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*, bera hil ondoren Donostian argitaratu zena.

Haren testuetan, zure esanaren arabera, hamaikatxo xehetasun ditu lexiko, gramatika zein estilistikaz, egun ere baliagarri izan daitezkeenak. Aipa ditzadan batzuk, gure belarrietan bitxiak esan arren, euskararen izateari erro-errotik dagozkionak.

(1) LLOVET, JORDI: «Amb vocació d'humanista», *Serra D'or*, juny 2002, 510. zk, Montserrat.

(2) VILLASANTE, LUIS: *Aita Juan Mateo Zabalaren Sermoiak (I)* Real academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia. Bilbao 1996, XI. orr. : «15 urte zituela frantzizkotar Ordenako habitua hartzen du eta Nobizioadua egiten. Non? Ez dakigu. Aita Larrinagak dioenez, Bilbon ez zuen hartu habitua, beste komenturen batean baizik. Apaizgorako ikasketak ere Bilbotik kanpo egin zituen, Kantabriako Probitzi barruko etxe-komentuetan, hots, erderaz egiten zen herrietako komentuetan. Zein herritan, ordea? Ez dakigu. Orduñan? Gasteizen? Edo Arabako beste komenturen batean? Ez jakin. Dena den, berberak esaten du orduan dorpetu eta atzeratu egin zela euskeraz.

Haren sermoien lehen liburukia dut gidari, Aita Luis Villasantek paraturiko argitalpenaren bidez. 1996. urtean agertu zen, Euskaltzaindiaren Euskararen Lekukoak bilduman.

3.1. Lexikoa

Lexikoaz denaz bezainbatean, egun ezezagun zaizkigunak:

Damuaria (11.or.)

Lotsaria (67 . or.)

Alaguina: Ta berean dagozan gauzac iñurri bacar bat alaguiña bere ez-tirian (66. or.)

Laguntegui: asi yacan laguntegui andi bat deadarca eske (73. or.)

Disimilazioaren bidezkoak: *arpelic* (232. or.)

3.2. Morfojoskera

Deklinabidea

Guisasemeac guisasemeetara (8. or.)

Emacumeac emacumeetara (8.or.)

Baacutsue ceinbat doian guerizaric eta gorputzera, irudineric eta izatera? Bada hori guztiori doa nic esan dodaneric eta J.C^o.c eguin evanera (8. or.)

Ecer-ezerik (45. or.)

Noguiño helduten dan (85. or.)

Aror pecatari itsua... aror celango osasunguei...aror celango precioa bear izan dan zure zorrac quitu eta paguetaco (101. or.)

Adberbioak

An oparo yan, naroro edan, galanto yanci... (43. or.)

Deungaro eguina (4. or.)

Aurtemin (71. or.)

Aditzak

Aginteran erabiltzekoak: *Erdue bada cristiñau onac...* (46. or.)

Esan /iron: *zauri orreec dirauste...* (91. or.)

Ecce homo dirautse... (77. or.)

Hika testuinguru markatuan (3) [Judas apostoluak Jesukristori: *ic esan doc Yangoicoaren Seme asala i: guzurra doc ori. Ic esan deustac, baakiala ic, ni cetan nayabilen: echoat nic ire arduraric. Orche yaiozac, iri eracutsico deuenac?* (69. or.)].

Aditz lokuzioak

Ernegadu aguinean (3. or.), *il aguinean* (62. or.)

Perpau koordinatuak

Zuenac dira gauza guztiac, nai dala mundua, nai dala bicitzea, nai erio-tzea, nai aurrean daucazuena, nai guero etorrigo dena. (83. or.)

Perpau distributiboak

... eta alan diño san Agustinec ce, celan Jaungoicoac guizona beretzat eguin evan, alan guizonentzat eguin evazala gauza guztiac... (83. or.)

3.3. Lokuzioak

Berehala sumatzen ditugu haren lerroetan halakoak, usu erabiltzen baititu egun falta izaten ditugunak:

Onantzean eta arantzean (8.or.)

Onic onenean (9.or.)

Orain bereon (9. or.)

Inoren buruco sitza icusi oi da, eta norberen buruco otsoa ez (10. or.)

Alanbere celan-alan (35. or.)

Minen minez (39. or.)

Bein-danic bein icusi cituzan asco ta asco (65. or.)

Baliabide estilistikoak (konmutazioa): Il da Yesucristo gugaiti: gugaiti il Yesucristo (59. or.)

Doa doaric emoten yacu ceimbat gura (19. or.)

3.4. Arlo bereziak

Harrigarri badirudi ere, idazle zaharrak ezin agortu ahaleko iturriak dira gu-retzat ere. David Crystal hizkuntzalariak esan legez, gizarte-maila duen orok eska

(3) ZAVALA, JUAN MATEO DE: *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*. San Sebastián, 1848. 166. or. : «25. Igualmente en la pasión del Redentor estarían bien puestas en conjugación de *ic* las expresiones que los Judíos y soldados dijeron a Cristo con desprecio y desacato...»

dezake hizkuntzaren aldetik zehaztapen eta izendazioa. Halaxe esan digu Arejittak berak ere, hots, *ahalegin berarizko bat egitera behartuak gara uneoro, edo zuzenbidea dela, edo filosofia dela, edo zientzia zehatzak direla... edo administrazioak barrutzen duen eremu zabal-askotarikoa dela, kulturak sortzen dituen kontzeptu berri guztiei euskal ordezkokoak bilatzen eta ahal dela ondo asmatzen.*

Asmatze horretan, bistan da, euskaldunok aspalditik ari gara. Tamalez eta ondamuz, askoren ahaleginak ezezagun zaizkigu, denboraren joan-etorriak ezabatu dituelako haien zantzuak.

Badira, hala ere, guregana iritsi direnak, azal horiztatu baina mami sendoarekin. Horra, berriro ere, egunotako auzia: haietatik zer ekarri eta zer utzi bazterrean. Zilegi bekit, guretzat puri-purian dagoen arlo bati helduz, harako esamoldeak biltzea, tradizioetik zer hartu zeregin horretan. Zabalak hezurramitu zituen horiek, barra-barra zebilena idatziz eta onduz, gerora ere, entzule euskaldunek aise eta molde errazenean uler zezaten:

3.4.1. Justiziaren erakundeak eta auziak

Cabildu beneragarriac, yusticiaco yaun prestuak (3. or.)

Belan querellea; escribaua batetic, letradua bestetic; gastetan da dirua, ichiten da bearra, eta au guti au ontzat eroaten da, yagotearren onrea (31. or.)

Ceimbat onelango auci ikusten dira mundu zabalean! Gozetan dira errenta andiac, baya eta lauciri emon gura ondasun oneec ichicituezanac gaitic (271. or.)

3.4.2. Salerosketa eta tratuak

¿Ceimbatec Zakeoc leguez lortu izango dozuez ceuen diruac legue eztan bidetic, eta artu-emon eta salduerosi okerracaz? (12. or.)

3.4.3. Zergak

Erregueari zor yacazan contribuciñoac (pechuac) paguetea galarazo gura evala (49. or.)

3.4.4. Foruak eta lege bereziak

Azotiac eta curutzeargo eriotza lotsagarria cirean Erroma-tarraí, eta euren foruac zituezan nobleai ecin emon leikioezanac... (75. or.)

3.4.5. *Jabetza eta eskritura*

Irudi gisa erabilia: *J. C. °c quenduten deutso Démoniñoari zure ganean eucan escriturea, borretan dau, urratuten dau; eta yosten dau curutze orretan, eta zuc eguiten dozu escritura barria Démoniñoagaz, ceinen bitartez ezagututen dozu ceure ugazaba eta nagusizat...* (103. or.)

3.4.6. *Testamentua*

Badauco cegaz atera testamentuan ichi cirean aguindu eta mandaac, eranzungo dau eztaucala obligaciñoric, eta ifinico dau auci bat ez paguetearren (270. or.)

4. ETORKIZUNERAKO NEKEAK

Euskararen akademiak lan ugari egiten ditu. Lanok ugari izan arren, beharrezkoak ere badira euskararen aitzinamendurako, Akademiak berak jatorrizko konpromisoa baitu euskararekin, berori ikertzeko eta jagoteko. Aldiotan, alabaina, ikerkuntza bultzatu beharrean gaude, berori baita oinarririk sendoena hizkuntzaren bizitzan eragin zabaleko izan daitezkeen erabakiak modu fidagarrian hartzeko.

Bitarikoa da, hortaz, euskararen corpusarekiko dugun egin- beharra, ikerkuntzarekin batera, ikerkuntza horien fruituak gizarteratu eta kanporatu beharra dagoelako, batez ere akademiaren eskutik. Maiz jazotzen dira bidegintza horretan tirabirak eta teinkada gogorrak, batzuen eta bestetzuen zereginak egoki zertu arte.

Berrikitan izan dut eskuetan katalan hizkuntzaren eremuan eginiko lan zirrargarria (4). Bertara bildu ditu egileak ahozkoa eta idatzizkoa, hizkuntza-erregistroen arabera egoki mailakatuta. Hartara, ahozkorik ahozkoena oinarri hartu eta hortik aurrerako pausoak eman ditu formaltasunaren sailkapenean, bigarrenez unibertsitateko ahozko eskolak ikertzeko; eta bi erregistro horiek haztatu ditu, azkenez, unibertsitateko testu idatziekin. Ondorioek, bistan da, berrindartu egin dute lehendik genekiena, baina guztiz baliagarri dena gure kasuan ere, hau da, ahozko hizkerak bateratzen dituela entonazioa, testu-loturak eta perpaus-konposizioa, hiru osagai horiek zehazten baitute hark behar duen premia komunikatiboen egokitasuna. Aldiz, idatzizkoa sintaxiaren alderakoa da, gramatikalizazio-maila sakonagoa duela.

(4) Castellà Lidón, Josep M. (2004): *Oraltat i escriptura. Dues cares de la complexitat del llenguatge*. Publicacions de l'Abadia de Montserrat. Barcelona.

Ahozkoak osagai linguistiko urriagoak erabiltzen baditu ere, osagai horiek balio ugariagoak dituzte. Lokailu gutxiegi badira ere, horietako bakoitzak erabilera desberdin gehiago ditu. Euskararen konektore eta lokailu horiek idoro beharrean gaude, gure premien arabera jokoan jarri eta baliatzeko. Altxorra, zer esanik ez, testu klasikoetan da, idatzizkoetan nahiz ahozkoetan.

Beharrik, teknikak eta makinak ditugu egun horretarako bidelagun apropos, eta, euskararen corpusak moldatzen ari garen honetan, idatzizkoa ez ezik, ahozkoa ere aintzat hartzeko modukoa da. Horretarako argumentuak erruz eta zoli eman dizkiguzu, eta ez izan beldur, ondo jasota daude horiek, geroko batean, gaur uste eta asmo dena, bihar-etzi izaera eta muin izan dadin.

5. KODAREN ANTZEKOA

Adolfo Arejita bilbotar euskalduna hartzen dogu gaur Euskaltzaindian. Badakit urte askoren buruan zure ametsa eta bizipozak bete dirana. Zorionak, berebat, zure emazteari, Laura Urubururi, zure seme Iurgi eta alaba Olaiari, etxekoei, eta Labayru Ikastegian urte luzetan zehar zugaz behar egin daben beste askori be, euskara aurrera eroan dozuelako, egoarri eta ahalegin handiagaz.

Gaur egun pozgarria dozu, Adolfo. Ohorea, dedua, aipamena egiten deusugu, euskararen alde eta mesederako egin dozun lan bikainagatik. *Honores mutant mores*. Halaxe esan ohi da. Horrexegatik da gaurkoa egunik aproposena zuri azaltzeko zuegandik espero doguna, hau da, orain artekoaz gain, zure ekarriak Akademiaren zereginetan jartzea, kargua hartzen dozulako eta karga handiagaz jardun beharko dozulako. Horiek horrela, Adolfo, luze baino lehen ikasi beharko duzu *honor* eta *onus* batera eta ber-bertatik deklinatzen.

Horretarako nahi zaitugu, gugaz bat egin eta lan egin dagizun, euskara gero eta aurrerago joan daiten. Ez daiten gerta, zuk zerorrek inoiz landu dituzun Bilboko Gabon Kanten esamolde haren antzera, euskaldunak halakoxeak be ez izatea:

Bakotxak bere izkuntza/ azturik badegu/ bakian gagoz eta/ ikasi bihar dogu./ Zerren ezpadakigu/ euskaraz berbeiten,/ nork igerriko gaitu/ bizkaitarrak garien?

Igarri ez ezik, ageriko nahi du Euskaltzaindiak euskara, Bilbon eta Euskal Herri osoan. Horretan du eginkizun, eta horretarako izan nahi ditu zure jakituria eta laguntza.

Mila esker. Esan dut.

ONDOETORRIAK:
Adolfo Arejitari omenaldia

Morga, 2005-VI-24

*Iñaki Lejarraga,
Morgako alkatea*

Eguerdion eta ongi etorriak gure herri honetara.

Herriko plaza honetan alkartu gara Adolfo Arejita euskaltzaina eta gure herritarrari omenaldi txiki bat egiteko asmoz. Danok dakigu Adolfok egindako lanak ugariak eta esanguratsuak dirala eta izango dirala euskara eta euskal kulturaren alorrean; baina nik horretaz ez dot berbarik egingo, hemen zagozienok nik baino hobeto dakizuelako horren barri, baina bere bizitzari buruz bai gura neuke zerbait aipatu.

Adolfo, Manolo eta Maritxuren semea dogu, bost seme-alabetatik laugarrena. Seminariora joan arte Morgan bizi izan zan, *Meaka* auzoan, *Iturrikoe-txe* baserrian. Handik *Meakaur* auzora jaisten zan, Gordo maisuaren eskolak eta kokotekoak hartzera; baina ez pentsa Adolfo bera be santutxua izan zanik, hau be, ume guztiak bezala bere trastadatxuak egindakoa be bada, baina hori alde batera itziko dogu.

Morgako eskolatik seminariora joan jakun Adolfo gurea ikasketak burutzera baina, hala eta guztiz ere, Morgarekin ez zan ahaztu eta sarritan etorten zan bizitatxo bat egitera. Txistua eta danbolina jotzen ikasi eban eta beti prest egoan Santixoatan eta San Martinetan etorteko eta bere doinu goxuekaz alaitzeko egun seinalatuok.

Gero, seminariotik urten zan eta unibertsitateko ikasketak burutu. Garai honetan euskararekiko ezkontza hasita eukan eta euskerak euskalzale handi bat irabazi dau eta elizak abade bat galdu.

Adolfo, amaitu aurretik eskerrak emon gura deusudaz bai Alkate nazen aldetik eta bai herritarren izenean Morga herria hainbeste maitatzeagatik eta Morga herria beti presente daukozulako.

Eskerrik asko.

ADOLFO AREJITARI BERTSO BI

Morga, 2005-VI-24

Jon Enbeita

Morgako zure herrian
gaur, Adolfo Arejita,
zeure sarrera ospatuz,
Euskaltzaindiak dau zita.
Noztik ezagutzen garan
kalkuloetan hasita,
zenbakietan galdu naz
eta itzi dot etsita.
Morga guztia poztu da
zu horrela ikusita.
Beti ezagutu zaitut
Euskara Amari josita,
maitasunagaz hatera
jakinduriaz jantzita.
Inork badau aulki hori
zeuk daukazu merezita.

Euskara Amak behar zaitu,
orain gidaria zara.
Izan zaitez euskaldunen
kontzientzien aldaba.
Baina geu be behar gaitu,
beharrezko danok gara.
Esaldi hau gura neuke
barriro mahaira atara:
Euskal Herririk ez dala
bizi ez bada euskara.
Beste filosofi danak
ez garoez ezetara.
Nahikoa abestu dogu
«Euskara jalgi plazara»
ia noz abesten dogun:
«Plaza euskararena da»